

MARIANO OSTOLAIZ

OROIPEN-KUTXA

OROIPEN - KUTXA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(182)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 - Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

MARIANO OSTOLAIZ

OROIPEN - KUTXA

Auspoa Liburutegia
1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipúzkoa)
Fotokonposatzalle: Lente fotocomposición - Estella
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-127-2
Depósito Legal: NA. 717-1985

ARKIBIDEA

Eskola eta dotriña	9
Gerrateko oroipenak	23
Morrontza	41
Arrobia eta basoa	85
Soldaduzka	91
Soldaduzka ondoan	105
Eleiz-giroa	117
Fabrikako lanak eta kontuak	133
Sagardotegiak	139

ESKOLA ETA DOTRIÑA

Oiartzun'go lurralde edo partean sortu nintzen, Altzibar barrioan, Pillittene edo Pirittene deitzen dioten etxe ttiki orretan. Egunan, 1925'gn urteko Martxoaren 14'an. Orduan ikusi nuen mundu ontako argia.

Gurasoak auek izan nituen: aita, Jazinto Ostolaiz Zumealde, Donostia'ko lurrean sortua, Uztaillaren 16'an, 1895'ean. Oiartzun'en il zan, Ilbeltzaren 17'an, 1953'an.

Ama, berriz, Nikolasa Goia Audela, Ergoin ballarako Olaitz-zarre basarrian sortua, Maiatzaren 24'an, 1894'an. Eriotz-agiriak dionez, Martxoaren 15'an il zen, 1967'an, Oiartzun'en.

Bederatzi senide izan giñen: Bruno, 1968-X-17'an illa; Jose Krutz; Agustin; Juanita, 1924'an, aingerutan illa; Mariano, ni alegia; Juliana; Inazio, 1969-XI-9'an illa; Maria Krutz eta Manuel.

Amabi illabete nituela ekarri omen ninduten, Iturriotz'ko Sabara izena duen etxe

ontara, familia onera etorri baizen bizitzera. Geroztik, naiz-eta familia sakabanatua izan, bertan jarraitzen dugu.

Nik nere burua Iturriotz'en ezagutu nuen, eta geroztik bera dut lekurik maiteena.

Bertan izan genduen, gazte-gaztetandik, eskola eta lenengo ikasbideak artzeko lekua. Sei urterekin asi nintzen eskolara. Naiz-eta gauza asko eta geiegirik ikasi ez, ara joaten giñen beintzat.

Ni asi nintzenean, bi maistra zaar izaten ziren. Zaarrenak Demetria zuen izena. Gazteenak, berriz, Saturdina. Andik laister, beste gazte bat etorri zen. Izena Karmelita zuen.

Arekin denbora gutxi egin genduen, eta orrela obe. Bestela, belaunetan kalloak egiñak izango genituen aguro; eta orrez gain, seguru aski, beatzak ere azkazalik gabe.

Gogor xamarra zen maistra ura. Makillarekin beatz-puntetan jotzen zigun ugari asko; eta belaun-pean arto-ale batzuk genituela belaunikatuak edukitzen ginduen asko eta askotan.

Ori gutxi zelarik, bi besoak zabaldu eta esku banatan bi liburu jartzen zigun, eta orrela egon bear izaten genduen, geienetan liburuak lurrera erortzen ziren artean.

Zenbat eta zigor geiago ark, guk orduan eta gutxiago ikasi.

Leendabiziko asi giñenean, bizkarretik zintzilik artu eta boltsa bat eramaten genduen, bertan kartilla, pizarra eta pizarrilloa

sartuak. Boltsa, amak trapu batekin egindakoa izaten genduen.

Ondoren, katona deitzen zitzaion liburua erabiltzen genduen.

Gero, komunio ttikia egin arte, zenbait errezo ikasi genituen: Aita gurea. Kredoa. Nere Jesukristo Jauna, Ni pekataria eta beste onelako zenbait otoitz. Dotriña ere bai.

Geienak, amak erakutsiak izaten ziren. Orduan etzen guregana apaizik etortzen.

Eskolan, berriz, maistra erdaldunak genituen. Iñoizka, zerbait ikasteko, kantari bezela aritzen giñen.

Komunio ttikia egin aurreko azken egunetan, amak erakutsiaz gaiñera, eleizara ere joaten giñen. Aitortza zer nola egin bear zen, zer otoitz egin bear ziren, orduan erakutsi ziguten.

Apaizak, aita eta amari egindako gaixtokeriak gogora-arazten zizkiguten; ezer ostu genduen eta abar.

Onela ikasten genituen komunioko pausoak: esamiña, aitortza, damutasuna, Jauna artzeraiñoko otoitzak; baraurikan joan bear zela; gero, Jauna artzeko, mingaiña luzatu bear zela, eta ortzekin ikuitu gabe irentsi bear zela; gero, ondorengo otoitzak.

Eguna iritxi zenean, leenengoan larri asko, ao-sapaian itsatsita ez ote zen geldituko, ezin kendurik; baiñan, noizbait ere beintzat, borobil-borobil egin eta sartu zen barrena.

Gero, eleiz-funtzioa bukatu ondorenean, amarekin kafesnea edo txokolatea ogiarekin jatera joan giñen.

Au izan zan nere izaera; zazpi urte arteko ikasketako agerpena.

Komunio ttikia egin ondoren, eta denbora gutxi barru, berriro ere jarraitu bearra zegoen.

Aste artan, maistren aldaketa izan zen. Etorri ziren berriak auek izan ziren: Srta. Sinforosa eta bere illoba gaztea, Gloria.

Auekin izan zen, aurrekoekin bezela, gure *batxillerra* eta *karrera* dena batera ikasia.

Leen bezela, gero ere otoitzak kantuz ikasten genituen, batzuk erderaz eta besteak euskeraz.

Garai artan, etxean bagenduen «dotriña zaarra» deitzen zioten liburuxka. Euskera ainbat erdera zeukan. Bazen dotriña erdalduna ere. Nola ez, bada?

Baziren, baita ere, beste zenbait euskerazko liburuak, kirol-kontuak agertzen zituztenak, eta beste euskal festa askoren berri ematen zutenak. Baiñan aiekin denbora gutxi egin izan genduen.

Bereala, beste liburu erdaldunak erakutsi zizkiguten: *manuskrito*a, *Enziklopedia*, *Historia de España* eta ez dakit zenbat geiago.

Artean guk ortan jarraitzen genduen. Lau reglak erakusten saiatzen ziren.

Neska eta mutillak, denak naaste izaten giñen, gela batean. An ere ezagutzen zen.

zein ziren *pikaroak* eta *pikarak*: alegia, arrezkoak eta emezkoak.

Garai artako gure eskolako orduak, auek izaten ziren: Goizean bederatzietan sartu eta eguerdiko amabietan irtetzen giñen. Amaiketarik erdiak arte *errekrea* izaten genduen, burua arindu eta jolasteko. Amabietan, etxera, zigorrik ez bazenduen beintzat. Arratsaldeko ordubietan, ostera barrura, laurak arte.

Ostegun-arratsaldea jai izaten genduen. Larunbata, berriz, beste egunak bezelakoa izaten zen.

Dotriñaren lezioak, astean bi egunetan izaten genituen: astearte eta ostiraletan, irurietatik bostetara.

Ikasketa auek, Makutso'n, sagardo-fabrikari izaten ziren, bi geletan: batean neskak eta gu, mutillak, bestean.

Apaiz jauna, Don Juan izaten genduen; eta berari laguntzen, Don-Felizene'ko señoiritak: Madalena ta Maria Teresa Mitxelena.

Illaren lenengo ostiraletan, komulgatzera joan bear izaten zen; eta bezperan, orretarako, eskolara aurrez joanda, gero andik eleizara joaten giñen, aitortzak egitera.

Zenbait alditan, atera-arazten genduen apaiza bere *konfesonario* edo aitortzalekutik, geure zarata eta sesioak konpontzera.

Gure iskanbillak, geienetan, «i baiño leenago nauk ni» edo orrelakoak izaten ziren. Alakoetan, apaizak askotan aurrena zegoena azkena jartzen zuen.

Gero, andik ertendakoan, denak lagun izaten giñen; bestela ez baizegoen barkaziorik.

Illaren lenengo ostiraletan, goizeko zortzietan komulgatu eta eleiz-funtzioa. Gero, bukatzen zenean, kantuz eta abar, txokolatea eta ogia jatera joaten giñen. Aal zuena, alegia, denak ez baizuten patrikan sos askorik.

Eleiz-funtzioak eta orduko kantuak moldatzen zituena, Don Pablo apaiz jauna izaten zen.

Apaiz jaun batek, ez naiz gogoratzen zein zen, ala esaten zuen: Alegia, bederatzi lenengo ostiraletan, segidan, aitortza egin eta Jauna artzen zuenak, induljentzi osoak berarekin zeduzkala, eta Karmengo Ama Birjiñak etzuela pekatuan iltzen utziko. Ori egia bada, seguru gaude.

Baita ere, apaiz jaun arek esaten zigun, Karmengo Amari eta Aingeru Guardakoari, otoitz egiteko egunero, gutxienez iru Agur Mari.

Gure ama zenak, onela erakutsi zigun kaso ontako errezoa:

Aingeru Guardakoa,
guarda gaitzazu
gauean, egunean,
janean, edanean,
jeikian, etzanean,
loan, esnatuan,
gabiltzan leku guztietan,

partikularmente orain,
eta beti,
eta eriotzako orduan,
amen.

Otoitz au, goizean, leendabizi Gurutze Santua egin ondoren, eta gauean, oerakoan, errezatzen genduen:

*Angel de la guarda,
dulce compañía,
no me desampares
ni de noche ni de día,
que sin ti me perdería.*

*Jesúsito de mi vida,
tú eres niño como yo;
por eso te quiero tanto
y te doy mi corazón.
Tómalo, tómalo,
tuyo es y mío no.*

*Cuatro esquinitas tiene mi cama,
cuatro angelitos que le acompañan,
Lucas, Juan, Marcos y Mateo,
los cuatro me cogen y me llevan al cielo.*

Igande-goizetan, meza entzuten genduen, eta batzutan Jauna artu ere bai.

Arratsaldean, bezperak deitzen zioten funtzioa izaten genduen. Dirua aurreratzeko kartilla bat ematen ziguten; eta arekin, igan-

de-arratsaldeetan, iru ta erdietan, eleizara joan bear zen.

Errosarioa errezatu eta eleiz-funtzioa egin ondoren, Aurrezki-Kutxaren antzeko diru ori ordaindu eta gero jolastera.

Apaizak, mutil koxkorrekin Don Jose Luis, eta neskakin Don Juan izaten ziren. San Juango kapillan mutikoak, eta monjen eskolan neskak. An erakusten zizkiguten Galbarioko irudiak, Bibliako gertakizunak eta abar.

Aste-bukaerako, izaten genituen guk gure lezio edo laboreak, orain etxeko lanak eta debereak deitzen diotenak. Baiñan geienez, urrengo egunean eskolara arte, liburua ikusi ere gabe egoten giñen. Gero izaten ziren kezak: lana bat-batean ez bazenduen egiten, zigorra.

Berak erakutsi ziguten, jai-egunean etzela lanik egin bear. Ura bai guk azkar ikasi.

Gero, beste gaiñeko egunetan, ortxe ibiltzen giñen, jator xamar. Eta berriro ere, jai-eguna etortzen zenean, arratsaldean eleizara, kartilla artu eta... pezeta bat ordaintzen genduen.

Gerra zibilla etorri zenean, eleizkizun oiek galdu ziren neretzako. Nere ustez, beste lagun askorentzako ere bai. Bakoitzak bere bizia salbatzera beartuak izan giñen.

Garai artako eskolako lagunak izendatuko ditut.

Biurrienetatik asita, bat neroni, Mariano.

Bestea, Joxe Zapirain, Erretitxikine'ko

basarrikoa. Garai artan basarria zen. Gaur, eskolaren ondoko etxe-bizitza bat da. Gure Jaungoikoak, gaztetan eraman zuen mundu ontatik.

Bestea, Antonio Ugaldebere. Au etzen biurrikeriz gu ainbat irixten; baiñan alatsu.

Beste lagunak, ala mutil eta neskak, denak naastuak ibiltzen giñen gure jolasetan: Erreti'ko Joxe eta Eskolastika; Dukatene'ko Joxe eta Bixente; Garmendi'ko Ijinio; Xegundo Kamio'koa; Etxebeste'tarrak; Garmendi-txiki'ko Toribio; Jexux Aristizabal, nere bizi laguna, bere arreba Karmenekin; Garmendi'ko Ijinioren arrebak; Makutso'koak; Espaindi'tik iru edo lau aizpa; Makutso'n bizitzen ziren Perrando, Joxe Joakin Mitxelena bertsolaria; gu iru senide; Torres'ko beste bi edo iru senide; Makutso'tik, Patxi beste iru arrebakin; Santiago Aizarna, Dixparatene'koa; Erretitxikine'ko iru aizpak; Iriarte'tar iru aizpak; Martiarrene'ko iru aizpak; Leñene'koak, bi; Txoko'ko beste bi edo iru aizpa, anai batekin.

Gero, Altzibar'tik beste batzuk: Manuel Garaiar, bere anai Pedrorekin; onek bere bizia Frantzi aldean utzi zuen, arrobi batean, arri tartean, oso gaztetan; Adonena esaten zioten beste mutiko bat, eta abar eta abar.

Garai artan, izaten genituen guk ere gure armak, orain gutxi ikusten direnak badira ere. Orietako bat, *tiragoma* esaten zioten arri-tiratzaille tresna.

Tiragoma orietako bana artuta ibiltzen gi-

ñen gu beti, Joxe eta ni. Aal genduen guztian, asten giñen gu biak tresna orrekin.

Errekroa ordu erdi bat izaten genduen. Txori asko izaten zen. Pareta-txoriak deitzen dieten txori biurri orietakoak, beintzat, ugari. Gu, berriz, gure tiragomakin batek tira eta besteak tira. Gure intentzioa beti, txoriei botatzekoa izaten zen. Baiñan batzutan tiroa okertu egiten zen, eta orduan *krask!*, kristal bat edo beste puskatu. Eta, jakiña, aiek beti eskolakoak izaten ziren.

Etzen poliziaren bearrik izaten, zein giñen jakiteko. Ondoren zigorra: errekreora atera gabe egunen batzuk pasa; edo, beste batzuetan, bazkaltzera besteak baiño ordu bete beranduago atera. Baiña, ala ta guztiz, azkar aaztutzen zen asunto au: leiotik salto eginda, azkar joaten giñen etxera.

Gero, jakiña, maistrak bereala jartzen zigun: *castigado para toda la semana*.

Denak alperrik izaten zituen gurekin. Azkenean, negarrez jartzen genduen maistra, eta gurekin ezin izaten zuen karrerarik atera.

Amari ematen zion gure biurrikerien berri. Baiña amak aitari etzion ezertxo ere esaten, eta gu beti gurean aurrera.

Joxek etzuen aitarik. Ai zer bikotea elkartu giñen! *Piper* ez genduen egingo; baiña bai armak nola erabilli eta antolatu pentsatzen denbora ederki pasa.

Besteak or jolasten ziren zibotarekin, kanikakin, beste batzuk soka-saltuan, *al corro de las patatas*, edo txingotan, eta abar. Oriek

ziren orduko jolasak. Etzen telebistarik, etzen irratarik.

Leenengo irratia edo radioa, Dixparatene-ko denda zaarrean entzun nuen; Aizarna' tarrren denda alegia.

Gero, igande eta jaietan, mendira joaten giñen, gure tiragomakin, biguña¹ edo perdi-goï-pilla bat artu eta txoriak iltzera. Baita ere biligarroa eta egokitzen zen guztia, naiz-eta debekatua egon. Ori dena gutxi ajola guri.

Ontarako, Antonio Ugaldebere izaten nuen laguna, eta ondo tiratzen zuena gaiñera.

Igande-arratsalde batez, Lekune'ko mendian genbiltzan; eta guri begira zeuden bi gizonak, onela' esan zioten batak besteari:

—Mutil kozkor auek ere izango ditek, beren garaia datorrenean, eizerako afizioa.

Etziren askorik deskuidatu. Ederki asma-tu zuten, eta gaur egun alaxe ere da.

Orrela, gutxi gora-beera, jarraitzen gen-duen komunio aundia egin arte.

Komunioa egin aurretik, bi illabete inguruan, ikasketa batzuk egiten genituen eleiza-ko sakristian. «Sakristira joatea» esaten zioten. Goizero-goizero, antxe egoten giñen gu prest, bederatzietatik amaiketara.

Ara joaten ziren apaizak, beren galderak egingo zituzten, eta guk zuzen erantzun bear.

¹ biguña: *plomo*.

Orrela, egunean pixka bat, dotriña dena esan arte.

Ikasten etzuenari, edo erantzuten etzekienari, kastigua, eta gogorra gaiñera benetan. Zigorra, urte bete atzeratzea izaten zen. Eta komunio aundia egin gabe urrengo urterako uzten zutenari, *kalabazero* deitzen zioten. Kalabazero esan da bialtzen zutena, lotsagarria izaten zen.

Bi dotriña izaten ziren garai aietan: bata, leenagoko dotriña zaarra; eta bestea, geroko dotriña berria. Dotriña berria atera zeneko, guretzako berandu zen; guk dotriña zaarrarekin bukatu genduen.

Kalabazero gelditzen zenak, amabi urterekin egiten zuen komunio aundia. Bestela, berriz, amaika urterekin egiten zen.

Abogadu batek baiño esamiña geiago egin ondoren, iru edo lau egun leenagotik erakusten ziguten nola prestatu bear zen.

Eguna iritxi zenean, goizean Jauna artu; eta, ondoren, iñoiz baiño obeagoko bazkaria. Gero, arratsaldean, eleizara, gure kandela eskuetan genduela. Eleiz-funtzioa bukatu eta libre.

Komunio aundia egin ondoren, berriro ere eskolara. Dotriña zerbait erabiltzen genduen; baiña gutxi.

Kongregazioan sartu ginduzten gero. Mutikoak, Luistarren Kongregazioan; eta neskek, Mariaren Alaben Kongregazioan.

Illero Jauna artzera joan bear izaten genduen. Lepotik zintzilik medalla zintzo aski

jarrita joaten giñen. Medallak zinta urdiña izaten zuen; eta irudia, San Luis.

Jauna artu aurretik, eta ondoren ere bai, otoitz eta kantu egiten genduen, Don Pablo apaiz jauna zenarekin:

Oiartzun,
gogor erantzun,
aurrekoak bezela!
Ez degu nai bestela.
Jesus gau ta egun
gora dezagun.
Oiartzun,
gogor erantzun!
Mendi-muturretatik
itxas zabaleraiño
ez dugu nai
beste gauzik entzun.
Oiartzun,
gogor erantzun!

Baita ere:

Kristorenak,
Kristorenak gera;
Kristorenak betiko
izango gera!

Goizetik eleiz-funtzioa. Bukatu ondoren, jolastera joaten giñen. Beeko Plazako eskola zaarretan pillota-saio bat egin eta etxera.

Gero, arratsaldean, bezperak izaten ziren. Bertan errosarioa errezatu, kantu batzuk

kantatu, eta, eleiz-funtzioa bukatzen zenean, azkar jolasera joango giñen, tiragomakin edo abailarekin zela, eta abar.

Orrela jarraitu genduen urte ta erdi edo zerbait orrela. Baiñan ori ere bukatu zen. Gerra zibilla etorri zen, eta puska baterako jolasak aaztu ziren.

GERRATEKO OROIPENAK

Reketeak, edo naparrak —emen ala deitzen zieten— Lesaka'tik onuntz bazetozela entzun genduen, eta bereala beste kontu txar asko: emakumeei bularrak mozten zizkietela eta abar.

Oriek orrela zirela, aal zuenak, aal zuen tokira, mendi aldera beintzat, iges egin zuen.

Baziren gazte batzuk, eskopetakin bidera joan zirenak. Baiña gutxi balio izan zioten; bereala laisterka iges egin bear izan zuten.

Uztaillaren 24'an, oker ez banago, bazkaltzen ari giñela, zegoen guzia zegoen tokian utzi eta igesi.

Guk, leendabiziko, Oiartzabal-berri alde-
ra jo genduen. Arratsalde ura an egin genduen; eta, gauerako, Baringarate-beko'ra joan giñen. Bi egun bertan igaro genituen, lasto gaiñean lo egiñez, eta naiko pozik, egoera larri artan.

Jende asko bildu giñen, Baringarate-beko familiari esker. Leenengo gauean esnea eta

taloa bazegoen, eta ogi pizar bat ere bai; baiña laister bukatu ziren.

Gure familiatik sei senide giñen: ama, amona —larogei urte arrimatuxeak zituen— eta gu, senide denak. Anai gazteenak ama-lau illabete zituen.

Ama oso kezkatua zegoen: aita eta bi anai zaarrenak falta, gordeak alegia, eta non ziren jakin ez.

Kuku-larre bordan egonduak izan bear zuten, iru egun eta iru gautan: Bruno ta Joxe Krutz gure bi anaiak, *Xabalo* bi anaiak, Domingo Gartxitene'koa...

Gu bitartean Baringarate'n giñela, norbait tek mugitu bear zuela, eta ni bidali ninduten, Iturriotz'era jateko billa. Etxean billatu nituen ogi eta janari denak artu eta Baringarate aldera ostera.

Etxera geiagotan ere etortzen nintzen. Olloei jaten eman, konejoei ere bai, bee aldean zer zegoen ikusi ixpien antzera, eta berriro familiarengana.

Nerekin batera, Amolatz'ko Pilar, Txalako errotako Teodora, Arraldeko beste bat eta laurok, or ibiltzen giñen Baringarate'tik Suantza'ra, ta Esnao-soro eta Bordatxo'n barrera Amolatz, Arralde eta Txalaka'ra, ba-koitza bere lekura, eta ni Iturriotz'era.

Dixparatene'ko denda irekia egoten zen. Bertatik bear ziren gauzak artu eta berriro Esnao-soro'ko zabalera. An, leen esandako lauak elkartu eta Baringarate'ra.

Ni mutil kozkor bat besterik ez nintzela;

eta, arrapatu ezker ere, etzidatela ezer egingo. Ori esaten zidaten.

Irugarren egunerako, bakarrik ibiltzen nintzen, gero eta ausartago.

Orrela ikusten nituen ezkerak edo gorriak, beren berebil edo kotxeetatik pistolak erakusten zituztela.

Reketeak, Arraskularre'ko tontorrean zeuden. Tarteka tiro batzuk entzuten ziren.

Ezkerrak Ollarriarre'ko kaxkoan zeuden. Kañoi bat ere or eduki zuten.

Jendeak, berriz, artean, oean zeukazkiten koltxoiak, balkoietan jarri parapeto edo trintxera gisarako eta beren girizirako erabiltzen zituzten, balak pasa etzitezten. Illeak ez omen dio balari, aurrera joaten uzten.

Pau'ko (Pagoaga) errota izan bear zuten leendabiziko koartela reketeak.

Ni irugarren egunean etorri nintzen Baringarate'tik; eta, giro oso gogorra etzegoela ikusirik, laugarren egunean denak etxeratu giñen.

Ai zer nolako gustoa artzen dion nork bere txokoari, aurrez txarra ikusi eta ezagututakoan!

Bereala, laister sartu ziren rekete-tropak, kamioz-kamio, Oiartzun aldera.

Leendabiziko tropa Ergoin aldetik zetorrela, Ollarriarre'ko balkoitik koltxoiak leio-tik beera botzen azkar asko saiatu ziren. Ez dakit zeintzuk izan ziren bota zituztenak. Ni, Adurizene'ko ondotik begira egondu nintzen.

Lanak izango zituzten gero, oak bear bezala berriro antolatzen.

Oiartzun erria izan zen, leendabiziko beren mende artu zutena, gorriak iges egin baituzten.

Urrengoa Erreterria zuten; baiña muga Audele'n zeukaten. Or gogor egin zuten. Audele'ko zaldi-tokian zeuden ezkerak. Pika-bea palazioan reketeak. Aurrez Urkabe mendian egon ziren egun batzuetan; gero Garbuno'n, Makutso'n, eta ondoren Ugaldetxo auzoko Aldabene etxean.

Auzti'ko jira edo bueltaren gaiñean, piñu aundi batzuk baziran; eta emakume bat izan bear zuen, arbol gaiñetik tiroka ari zena. Besteak, berriz, ezin asmatu nondik tiratzen zuen. Azkenetako, bertan bizia kendu zioten. Zein zen edo nungoa zen ez dakit.

Reketeak emen inguruan zeuden, eta San Markos'tik kañonazoka ekiten zuten gorriak. Gure refujioa, Kamio basarri ondoko tunela izaten zen.

Egun batzuk igaro ziren bala-txistu eta orruen artean. Etsiztaigun iruditzen, iñondik ere, ezertxorik gertatu bear zuenik.

Egun aietako batean, gorriak Ugaldetxo'ko Aldabene etxeko neska bat il zuten. Zama-bide alde ortatik tiratzen zuten fuerte Ugaldetxo aldera. *Pakum! Pakum!* soiñu-irudikoak izaten ziren tiroak. Bere etxeko atean zegoela, bala bat sartu zioten gaizoari petxutikan, eta bertan kito!

Beste bein, Errenderi aldetik kamioi blin-

datu bat zetorren. Iyurrita'ko errotatik aurre-
ra gutxi joan zen. Aldabene'n zeuden reke-
teak, tiroka ekin zioten; baita kamioi blinda-
tu orrek zeukan txapa balaz ederki zulatu
ere, kartoia balitz bezela. Bere gidari edo
txoferra zauritua izan zen, eta bereala il zen.
Iges egiñak ere baziren.

Errota'ko gaiñean bi tren-bide ziren. Aie-
tako batean, kamioi ortatik iges zijoan bat,
bertan il zuten; eta bertan tren-bidean utzi
ere, usteltzen asi zen arte. Noizbait jaso zu-
ten!

Kamioi ortako txoferrak Bixente zuen
izena, eta Alzibar ballaran bizitzen zen.

Gauza oriek denak ikusita nago. Era or-
tan pasa zituzten egun batzuk; eta ondoren
-soldaduak etortzen asi ziren. Baita falanjeak
ere.

Aien artean ere denak etziren berdiñak.
Argi ibilli bear zen. Euskeraz itz bat ere egi-
terik ez genduen izaten.

Oien ondoren, Afrika aldeko jendea etorri
zen: marroki edo moro, lejionario eta dene-
tik. Moroak ziotenez, naiz emen il, Afrika'n
piztu egiten omen ziren.

Gazte bat bazen. Amasei urte edo orrela
izango zituen. Ain mutikoa oraindik, eta ge-
rran! Jaboi-kutxa batean sartu eta onela esa-
ten zuen:

—Iltzen banaute, sar nazazute emen,
kutxa ontan, eta bidali nazazute Afrika'ra.

Urrengo egunean, Erlaitz aldera joan bear
zuten; eta, nere ustez, geienak or il ziren.

Baiñan ez dut uste, berriz Afrika'ra joan zani-
nik iñortxo ere.

Goiz batean, Altzibar'en soldadu asko omen zegoen, eta beren nagusi kapitan bat zaldi gaiñean. Alako batean, San Markos'tik kañonazo bat tira zuten, orain Bazkun-zarra deritzaion etxeko pareta pasa, eta, zaldiari tripak atereaz gain, kapitanari bi anakak moztu zizkion. Beste zauritutako batzuk ere izan ziren, eta denak larri ibilliak izan bear zuten.

Ni momentu artan ez nintzen bertan. Andik laister ikusi nituen arrastuak.

Albiztur familikoak bazuten morroi bat. *Zirrizt* deitzen zioten, eta ganaduakin ibiltzen zen atze-aurrera. Ari ere, San Markos'tik granada tira ta tripatik pasa zion, or Karrika'ko arrobi inguruan, eta bertan ilda gelditu zen.

Garai aietan, bata eta bestea detenituz zebiltzen. Gure etxera ere etorri ziren reketek gau batean, aita oean zegoela. Leendabizi, aita bera eraman, gero etxe guztia naastu, bazterrak ondo miatuz. Ondoren, osaba Inazio eraman zuten.

Oiartzun'dik Lesaka'ra zeramazkitela, bi-dean onela esaten zieten:

–Begira: emen daude egiñak, zuek sartze-ko zuloak.

Ai zer animazioa beren biotzetan, gauza auek entzunda!

Osaba bidali zuten aguro Lesaka'tik. Mintsu baizegoen. Minetako gaitza zeukan sartua. Gero, auek denak pasa ondoren,

biotza ere zauritu zitzaion; edo, obeto esan, zauritu zioten. Eta andik laister egin zituen mundu ontako aldiak. Donosti'ko Ospital zaarrean il zen.

Aita, berriz, Iruña'ra eramán zuten, eta an egon zen bolara batean giltzapean. Ezer okerrik etzioten aurkitu, eta il gabe utzi zuten; baiñan larri-larri. Bere lagunak baziren, ilda geldituak.

Egunetara, karta idatzi bat etorri zen etxera, alegia bi milla pezeta ordaindu bear zirela, ura libratuko bazen.

Orduan, gure ama erriko agintariengana joan zen, diru ori guk ezin genduela ordaindu eta Iruña'ra zerbait erantzuna bidali bear zela esanez.

Errian, lagundu bearrean, orri okerrak egin zituzten. Baiña, orri oiek Iruña'ra iritxi baiño leen, gure aita etxean aurkitu zen, bere txapela gorriarekin. Ura gure orduko poza! Nola ez?

Nondik atera guk bi milla pezeta, xentimorik izaki ez eta? Ai zer gauzak sartzen ziren gure amaren biotzean, lurretik juxtu-juxtu azaltzen ziren umetxoak bazterrean zeukan artean!

Ollo batzuk izaten genituen; beste konejo batzuk ere bai. Noizik eta bein saldu egiten ziren, ogi pizar bat jango bazen. Alzibar ballarako Torre edo Pastero etxera eramaten genituen. Bertako etxekoandre Mariak ordaintzen zuen jeneroa, eta aurrera denbora.

Geroago, bere senarra zen Pedro Arbide jaunak. Etxe ontan denda eta ostatua izaten zen.

Askori mesede ugari egindako familia zen. Berdin Dixparatene'ko familia ere. Eskerrak aieri. Maria eta Joxe zuten izena. Mundu au utzi zuten. Baiña ziur nago, egin zituzten laguntzengatik, onezkero gure Jainkoak ondo sarituak izan dituela.

Naiz oraindik mutiko bat besterik ez izan, ni nintzen orduko enkargu-egillea; edota, askotan beintzat, ala izaten nintzen.

Egun batean, banijoan nere olloarekin Altzibar'ko Pastero etxera. Adurizene'ko aurrean reketeak zebiltzen jiraka eta bueltaka; eta neri, pasaeran, onela galde egin zidaten:

—*¿A donde vas?*

Nere erantzuna:

—*A Alcibar a hacer recados.*

Eta berak:

—*Y tú ¿qué eres: nacionalista o carlista?*

Berriro nere erantzuna:

—*Yo, carlista.*

Ea zer erremedio, ori esan bearra!

Nik orduan oiñetan alpargata gorriak neuzkan; eta aietako batek, ori ikusirik, onela galdetu zidan:

—*Entonces ¿por qué llevas alpargatas rojas?*

Nik onela erantzun nion:

—*Y vosotros ¿por qué lleváis boina roja?*

Nere ateraldia entzun eta elkarri parra ugari egiten ziotela:

—*¡Hasta luego, chaval!* —esan zidaten; eta

ni nere bidean, eta rekete aiek ere bai be-rean.

Era ortan gabiltzala, konfiantza pixka bat ere egin genduen, batzuekin beintzat.

Berak zeukaten janari edo arrantxotik, zerbait ematen ziguten. Guk ura bear, eta denak kontentu ibiltzen giñen orrela.

Berriro ere, salaturik, gure aita detenitua izan zen. Berarekin batera, Erreti-txiki'ko aitona ere bai, eta Joxe Garro deitzen ziotena ere bai. Au, izen-abizenez, Joxe Rekalde zen.

Leenengo, erriko enparantzan egon ziren, bi orduan, Udaletxeko azpian. Bertako bo-luntarioak egoten ziren zaitzen.

Ni, berriz, amak, zer gertatzen zen ikuste-ra bidali ninduen. Baiña alperrik; etzegoen ezer egiterik.

Gure aitak, sasoi artan, Altzibar'en egiten zuen lana, bere koñadoarekin. Juan Sein ize-nez bera. Perratoki eta zurgintegia zeukaten. Aiei laguntzera joaten zen, erroera baizen gure aita, eta beste leengo bere lana kendua zeukan.

Detenitu zuten egun artan, afaria zuten. Gure amak kazuela bat karakol maniatu zuen. Eta aita, arekin Altzibar'era zijoala, bi-dean artu zuten eta errira ekarri. Egun artan, karakolik jan gabe gelditu zen. Ez dakit aie-kin zer egin zuten, edo kazuelkada zeinek jan zuen. Baiña gure ama, beintzat, kazuela eta gizonik gabe gelditu zen.

Oiartzun'dik Ondarreta'ko espetxe edo

kartzelara. Il egin bear zituztela; baiña, bi urte igaro ondoren, bizirik etorri ziren.

Aurrez, Arditurri'ko minetan izaten zuen bizi-moduko lana. Ura ere kendu egin zioten.

Bolara batean, eskolara joan gabe egon giñen; eta, eskolara asi giñenean ere, ni beintzat gutxi ibilli nintzen.

Orduan jarri zuten *Auxilio Social* deitzen zitzaiona, *Sindicato* edo *Agraria* dagoen lekuan. *Auxilio Social* ortara joaten giñen gu, lau senide, bazkari eta aparria egitera, Aal zuenak, aal zuen lekura.

Bi anai zaarrenak gerran ibili ziren. Bruno, kañonazo batekin zauritu ta Iruñe'ko ospital batean denboraldi bat egin zuen. Beste anaia, Joxe Kruz, gero eraman zuten.

Bi anai oiek, seina urte soldadu; aita, giltzapean iru urte; beste anaia, Agustin, morroi, Maixta-borda'ra leendabizi eta Altza'ra gero.

Ala ere, bost senide gelditzen giñen etxean: Julita, Marikrutz, Inazio, Manuel, eta ni; eta, gaiñera, ama eta amona. Naiko familia etxe utserako.

Reketeak egun batzutan egon ziren Oiartzun'go errian. Gero, emendik zabaldu ziren Erlaitz eta Irun aldera, San Markos aldera eta abar.

Iturriotz'en egon zirenetatik, botak zituztenak gutxi ziren; geienak albarkakin etorriak ziren. Soldadu auen bota-falta, Dixparatene'ko dendak pagatu zuen. Alegia, karga

berari erori zitzaion. Eraman egin zituzten; ordaindu, ez dakit...

Illunabar batez, an zeuden batzuk. Botilla koñaka eta edari ugari bazuten. Batzuk kantari eta besteak negarrez. Aien artean ere bai-baiziren, emazte eta umeak etxean utzi eta etorriak; eta beren biotza ere izaki, eta negarrari eman bear askotan.

Emendik San Markos mendira joan bear zuten; eta orduan, leendabizi, artilleria etorri zen Iturriotz'era. Emendik gora, Portugal baserriko gaiñetik, mendi-egalez joan ziren. Zear oietatik San Markos eta Txoritokieta'ra tiratzen zuten. Egun batzuk orrela igaro zituzten.

Gu, Goikoetxe edo Meiko-Etxeberri deitzen zaion etxetik, begira egoten giñen.

Munuaundi mendian egonaldi luzea egin zuten reketeak, or egon ziren egunetan, San Markos'tik tiratzen zizkieten kañonazoak nolazbait erasoturik eta sufriturik.

Orduan, Udaletxeko alondegian zeuden detenituak, leendabiziko gudariak, bi ziren: Rafael Iriberry, *Zurdo* deitzen ziotena, ezker-rra baizen, Iturriotz'koa; eta Prantxisku Mitxelena bestea.

San Markos'tik kañonazo bat tira, granda Udaletxean sartu, Rafael zauritu eta Mitxelena bereala il zen. Rafaeleri beatz bat gelditu zitzaion eskuan.

Emendik Lesaka'ra gurdi zaar baten gaiñean eraman zuten. Andik Iruña'ra. Orrek salbatu zion bizia Rafaeli, Iruña'ra zauritua

eramana zutela alegia. Bestela, bereala fusilatuko baizuten.

Noizbait aurreratu zen fronteak, lurraldean tiro eta bonbez libratuz. Baiñan ez guk nai orduko.

Kañonazo asko tiratzen baizuten, Oiartzun'go eleizak ere bazituen arrasto ederak. Obus bat izan bear zuen, kanpantorrearen gainetik sartu, beeraiño etorri eta leertu gabe gelditua.

San Markos artu zutenean, Ernani alderajo zuten. An batalla gogorra izan zen. Errenderia'n eta San Martzial'en ere bai. Gogorre-na, emen San Martzial'en, noski. Il eta zauritutako asko izan zen; batez ere Afrika aldeko jendea.

Gorriak edo ezkerak deitzen zirenak, Irun'en zeuden. Aiek, gau batez, bertako etxegeienei su eman zieten, eta berak eta Irun'go familiak mugaz ipar aldera pasa ziren.

Ai zer orduko tiro-otsak eta sugarrak! Etzen orduan, argi egiteko, illargiaren bearrrik. Baiña argi penagarria zen ura: gorria eta odolezko iturria adierazten zuena.

Emengo gogorkeriak urrutiratu ziren; eta gu, berriz, osterak biurrikerietara. Eskolako lagunak elkarren aurka gerra egiten asi ginen. Tiragomak eta aballak ibiltzen genituen. Egindako biurrikeriak ondo atera ziren.

Nik granada bat urratu izan dut. Gure ama zenak, josteko makina bat bazuen. Andik destornilladore bat artu; eta, leendabizi,

muturrean zeukan espoleta kendu, eta gero tripak urratu.

Barrenean, kanika-mordo bat zuen, bat besteari erretxiñarekin josiak. Aiekin tomate poto bat bete nuen. Kanika oiek berunezkoak izaten ziren. Aiek kendu.

Tubeo bat ere bazuen erdian, metxa deitzen ziotena. Beeko ondoan, polbora edo trilita izaten zuten. Aiek denak kendu, su eman, granadaren azala txatarreroari saldu, eta naiko munizioarekin kontentua.

Lan ori dena neronek bakarrik egin nuen. «Ondo aterea, ondo kontatu» esaera zaarrak dion bezala. Gauza ori, etzuen iñork jakin izan. Orain jakingo dute.

Granada ori Audele'tik ekarria izan zen, San Markos'tik ezkerak bota eta leertu gabe gelditua.

Orrela joaten giñen aurrera gure biurrikeriekin. Barrioak beste barrioen aurka ere ibiltzen giñen.

Altzibar'ko estazioan trena egoten zen. Bertan, bagoiak edo kajarik gabeko *mesillak* deitzen ziotenak egoten ziren. Oietako bat bertatikan artu, gaiñean jarri eta aurrera. Gelditzeko, egur batekin egindako freno manejatzen genduen. Leendabiziko biajea, Anerre'ko tuneleraño.

Ugaldetxotarrak Iturrioztarren aurkako burruka izaten genduen. *Mesilla*'rik gabe ere etorri izan gera, Ugaldetxotarrak kenduta. Baiña, nola edo ala, laister bueltatu izan zen lengo bere lekura. Txarrena ori izaten zen:

bultzaka ekarri bear bere lekura. Baldin-eta katxarro arek motorra izan balu, ez dakit zer gertatuko zen.

Gerra oriek igande-arratsaldeetan izaten genituen, bata besteari aballarekin tiraka, eta nola tira gaiñera! Aballa arma itxusia izaten zen, eta arrixku aundikoa.

Bota zaar bati puxka bat kendu, bi xulo egin mutur bakoitzetik, lokarri bana lotu, bateri beatza sartzeko tximistua edo lazoa egin, besteari korapilloa egin, buruaren gaiñetik jira-biraka erabilli indarra artu zezan, eta orduan tira gure indar guziarekin, joaten zen lekura joaten zela.

Arriak nola ez duen begirik izaten, batere uste etzuenak artzen zuen kaskarrekoa. Ikusi izan ditut, kopeteko azala ederki ebakiarekin.

Ugaldetxotarrak ere granada bat eskuratu zuten. Ura aundia zen. Leendabiziko, kaniak edo bolak kendu zizkioten. Aundiak ziren; burnizkoak. Ondoren, su eman zioten.

Suertez, etzen bazterrera leertu, eta kaskilloaren muturretik atera zen indarra, soiñu bildurgarri bat egiten zuela. Jendea ere ederki ikaratu zen; baiña etzen ezer gertatu.

Erriko agintari edo guardi zeudenak ere, arrimatu ziren azkar; eta zer nolako arrixku zegoen aditzera eman ere bai aguro denei. Orduan bukatu ziren gure gerrak.

Ala ta guztiz ere, gu Audele aldera joaten giñen. Or baizegoen aukera: leertu gabeko granada asko, esku-bonbak eta abar. An

ikusten ziren zaldiak tiroz illak, balaz josiak, zelaiaren erdian. Erru aundia izango zuten animalia gizarajoak! Debekatua zegoen nolainai ibiltzea.

Gero, granadak eta bonbak txatarrarako biltzen asi ziren. Geienak bildu zituzten.

Ala ta guztiz, Iturriotz'ko zubi azpian, granada bat gelditu zen. Or ere suertea izan zen: guk ura leertzen ikusi nai, eta bizkar gainean gora igo eta andik beera bota. Ez dakit zenbat aldiz egingo zen gauza ori. Ala ere, leertu gabe gelditu zen; eta orrela obe.

Nik ez nuen indar aski, neronek bizkar gainean ura eramateko. Bestela, an ibilliko nintzen saltsan.

Ura ere San Markos'tik botea zen, Makutso aldera. Or ere, Makutso'n, reketeak egon baiziren.

Gure etxe inguruan ere sartu ziren bonbak; baiña leertu gabe gelditu ziren.

Kamioko tunelaren petrilla jo eta bazterreko pixa-depositoan leertu zen bat. Ura orrua! Jende asko geunden orduan tunel azpian, refujioan. Izu aundiak pasa bai; baiña ezer okerrik etzen gertatu.

Gau artan bertan, Adurizene'ko sagardotegian sartu zen granada bat. Paretak eta ormak zulatu, tolareak ondatu, eta upel edo ontziak ere bai.

Upel aundiari Aitona deitzen genion. Orri, berriz, Oiartzun aldetik balak tira, leiotik sartu eta sagardoa ixuri-arazi ederki. Obe

izango zuten edan izan balute, alperrik ondatu bearrean.

Gu, berriz, artean nora edo ara ibilli bearra. Garmendi'ko gaiñera igo, eta andik kamio aldera aballa artu eta tiraka. Garmendi'ko gaiñetik Anerre'raiño irixten ziren, kani-ka edo bola deitzen genien oiek. An aspertzen giñenean, Kamio'ko tunel barrura.

Gurdibide'ko zelaiean artoa izaten zen. Arto-bizarra kendu, txurikiña ere bai, gero zigarroa egin, eta ura erre eta aurrera.

Zarragoak, oiean pixa egiten zela esaten ziguten, suarekin jolastu ondoan; eta, ura ez egitearren, utzi genduen.

Gero, aiena edo sasigaiñekoa deitzen genien landare aiekin, zipotz batzuk egin eta ura erretzen genduen.

Agerre'ko txaran eta Mendibil'ko basoan, garai artan arbola aundiak izaten ziren, eta ura izaten zen gure tabako-fabrika. Mendibil'ko basoan zugaitzak ixiruak ziren, muturra moztu gabeko aritzak alegia, eta aiek naiko errekiña non-nai, naiko aiena izaten zuten bueltan, sasi-maatsaren antzekoa. Ortatik erretzen ere azkar aspertu giñen, miña izaten baizen.

Aiek utzi ezkeroztik, ez dut nik geiago erre. Kalte aundirik ere ez, noski.

Gero eskolara asi giñen. Oso denbora gutxian joan nintzen.

Batzutan, Tronpeo'n bei aurrean ibiltzen nintzen, Juxto zenarekin. Oraindik bakarra billatu dut nik, bei-aurrekoari errita ematen

etziona, eta uraxe Juxto, leen aipatua. Gizon gozoa gauza denetarako. Garai artan, Tronpeo basarri ederra zen.

Orrera joaten zen bati, Joxe Luxia esaten zioten; Joxe Iriberry izenez. Leen aipatutako Rafaelen aita zen. Ez Juxtoaren antzeko, alajaña! Errita asko arek bei aurrean zebillenari.

Orain arte izan duten lanik txarrena, bei aurrean ibiltze ori da. Errua beti aurreko gidariak izaten zuen. Ondotik zebillenak errita egin eta aurrekoak ixilik egon bear. Bestela, akullua.

Beste arratsalde batean, Juanito Gartxite-ne'koarekin artoari ostoa kentzera, beren zelaira. Lana bukatutakoan, sagar-arbol batzuk zeuden an, sagar-ale batzukin. Nik onela esan nion Juanitori:

–Sagar batzuk jan bear dizkit.

–Bai, motell. Jan itzak –erantzun zidan.

Arbolaren gaiñera igo nintzen, eta bai jetxi ere azkar. Adar bat autsi, nere azpian zegoena ain zuzen, eta ni lurrera. Eskumuturra atera nuen bere lekutik, eta Juanitok sartu zidan bere lekura. Baiña, etxera etorritakoan, aunditu egin zen.

Urrengo egunean, Ondarrabi'ra joan giñen petrekilloarengana. Petrekilloa esaten zioten au, gizon aundi bat zen, eta garai artan jende asko joaten zen berarengana. Ni ere joan nintzen, bada, aiton orrengana.

–Zer dakarrek, mutiko? Ez dek arritzekoa mutil kozkorrak orrelako gauzak egitea. Zer egin aiz: erori?

-Bai, jauna erantzun nion nik.

-Lasai orregatikan, motell, ire aita leenago erori uan eta.

Eskutik eldu eta onela esan zidan:

-Emen autsia ere bazegok, eta zaiñak okertuak zeudek.

Pixka batean izarrak ere ikusi nituen.

Nere amarekin joaten nintzen. Irun'era topoan, eta andik Ondarrabi'ra tranbe zaar-rean. Iru bider joan nintzen, eta naikoa.

Sei duro kontu dena. Amar pezeta aldirako. Sei duro zillar ordaindu, eta trapu zaar bat, ur beroarekin busti. Trapu zaar arek gatza eta ozpiña besterik etzeukan. Eta egunean iru aldiz baño beroa eman, eta orrela sendatu zen.

Ondarrabi'ra bigarren aldiz joan eta etxera gentozela, Oiartzun'go errian kanpai-ots aundiak somatu genituen. Zer gertatzen zen galdetu genduen, eta Bilbao artu zutela esan ziguten; gorriak iges egin zutela, eta ori adierazteko jotzen zituztela kanpaiak.

Ziudade edo iri bat artu eta beraren jabe egiten zirenean, eskubiak errietan kanpai-otsak jotzen zituzten.

Gaur egun, kanpaiak erdoiak jango ditu. Agoni-otsa besterik ez da entzuten.

Orren ondoren, berriro ere eskolan ibilli nintzen zerbait, baiña ez askorik. Amairu urte oraindik betetzeko nituela, morroi joan nintzen Olatz basarrira, eta bertan egon nintzen, emezortzi urte egin nituen arte.

MORRONTZA

Amairu urtera oraindik iritxi gabe, morroi joan nintzen Olatz basarrira. Gustora gaiñera.

Olatz'ko amona zenak Korneli zuen izena; eta bere senarrak, Balentin. Mutil koxkor bat pozik artuko zutela esan zioten gure ama zenari; eta amak, berriz, ni aukeratu.

Ea joan nai nuen alegia, ganaduak larre eta belar-soroetan zaintzera, bei aurrean ibiltzera, enkarguak egitera, eta abar. Nik azkar erantzun nion baietz.

Santiago eguna zen joan nintzenean, eta bero aundia egiten zuen. Nere amona eta biok joan giñen.

Bertara iritxi giñenean, ongi artu ginduzten. An etzegoen jan-edanaren faltarik. Iru bat ordu egin genituen, eta ondoren ni osterata etxera, amonari laguntzera.

Ori larunbatarekin zen; eta, urrengo egunerako itz eginda geunden. Igande-eguerdian joan nintzen osterata Olatz'era.

Leenengo egunetan, lotsatu xamar aurkitzen nintzen. Baiña laixter aski etxekoa bezala egin nintzen, eta etxekoa banintz bezala ibilli ere.

Goizean jeiki, kafesne beroa artu eta ganaduaekin larrera. Etxekoandre gazteak, erraiñak, Martina zuen izena; ta bertako alabak, Tomaxa. Beiak goizean-goiz jeizten zituzten, eta gero ni mendira nere kontu. Tomaxa, berriz, enkarguak egiñez, Dixparate-ne'ra esnearekin. Amona eta Martina etxeko lanak egiten gelditzen ziren.

Aitonak, berriz, Altzibar'en egiten zuen lana, Joxe Juan Iragorri'ren zerran. Martinaren senarrak, Nikolaxek, Antxo'ko muellean egiten zuen lana.

Alaba bat zeukaten, Pepita izenekoa. Ni joan nintzenean, urte bete izango zuen, eta bera ere zaitu egin bear.

Beste iru anai ere baziren: Daniel, Bautista eta Antonio. Oiek irurak gerrara joan ziren, *Columna Sagardia* deitutakoan.

Basarriari norbaitek kontu egin bear, eta geienetan neroni izaten nintzen nagusi. Egun askotan ez baizen basarrian beste gizonezko-rik izaten.

Ni joan nintzen garai artarako, arta jorranko lanak bukatuak ziren.

Gero, bi-belarra ondutzeko garaia etorri zen bereala. Ni oraindik segalari kaxkarra eta txarra nintzen; baiñan pixkana-pixkana asi nintzen ikasten. Laguntzailleak ere gerora eta geiago izaten ziren, eta orrela tira aurrera.

Garai aietan, oraindik ogi zuria bazegoen.

Goizean, bederatziak inguruan, gosaltzen genduen. Gosaria etzen txarra izaten: baratzuri-zopa, sardin zarra arrautzarekin, sargardoa naikoa; eta, tripa bete ondoren, ostera berriro ere lanera.

Etxe ondoan baldin-eta bageunden, amonak ots egingo zuen. Mendian baldin-eta bageunden, berriz, bizikletaren bozina zaar batekin, edo bestela korneta zaar batekin, nola edo ala beintzat, orietako tresna batekin adieraziko ziguten ordua zela.

Iratze edo garoaren lanetan ari bagiñaden, gosaria mendira eramango ziguten.

Bazkaltzera, etxera etortzen giñen.

Siestarik ez genduen egiten sasoi ortan. Negu partean, eta Santa Krutz eguna arte, egunean ordu betekoa egiten genduen siesta. Gero, berriz, batere ez, leen esan dutan bezala.

Ori dena, leengo ordu-usario zaarretan izaten zen. Alegia, gaurko orduak aurreratze-ko oitura berri au sortu baiño leen.

Etxera bazkaltzera biltzen giñenean, an egongo zen mai gaiñean fuente aundi bat, babarrun gorri eta urdai-pusketa ugariz bete; edo, bestela, baba beltza, edo baba txea, edo zegonetik jakia. Ori zen gauza!

An etzen platerarik ikusten, bolara luze batean beintzat. Kutxarearekin jaten genduen denak, fuentetik artuz.

Gero patata-tortilla; eta, postretarako, sargar erreak.

Edaritarako, sagardoa; eta ura ere denak txarro batetik edaten genduen, basorik gabe alegia. Txarroa, aoz-ao, maiaren jiran ibiltzen zen.

Azkena ustutzen zuenak, kupeletikan ekarri bear izaten zuen, berriro beteta. Zebait, eta bat baiño geiago, azkeneko tragoa egiteko beldurrez egoten ziren, kupeleraíño ez joateagatik. Geienetan, kupeleko txanda nerea izaten zen.

Aparia, porru-patatak. Gero, bakallo-tortillaren bat. Arraia, íñoiz beinka. Oso gutxitan, beintzat. Bukatzeko, esnea; eta ondoren lotara, sano arraio.

Udazkeneko basarriko lana !atza izaten zen. Lan denak batera etortzen ziren: iratzelanak, babarruna biltzeak, sagar biltze eta jotzeak, sagardoaren lanak, eta beste asko.

Jai eta aste aritzen giñen, zer egun zen ere ezagutu gabe. Igande-eguna noiz zen zerbaitengatik ezagutzen bazen, Oiartzun'go eleizan bostetako meza ematen zelako izaten zen. Ara joan bear izaten baizen.

Gero, bazkaltzeko garaiean, aragi, edo beintzat janari obeagoa, izaten genduen. Kafea ere bai bazkal ondoan. Baiña lana, berdin.

Eguraldi txarra edo euria zenean, sagarlanera edo tolareko zeregiñetara: barrikak, kupelak eta abar garbitu.

Orduan, sagarra saldu ere asko egiten zen. Tonela esaten zitzaion ontzi bat izaten zen neurria. Barrikaren antzera egurrez egiña

zen. Ura bete eta zakura. Sei zaku sagarrekin, karga sagarra egiten zen.

Iru duro kargako izaten zen prezioa; gero, zazpi durora iritxi zen.

Urte batzuk orrela joan ziren. Gero, sagar-arbolak gutxitzen joan ziren; eta, azkeneko, etxerako ainbeste eta kitto.

Sagarra, eskuzko makinakin txikitu bear izaten zen, eta orduan auzotikan etortzen ziren laguntzera.

Etortzen zen bat, Ermita etxeko Andrex izaten zen. Andrex au, Tomaxaren laguna zen. Gero berarekin ezkondu zen. Beste bat, Arbide'ko Joxe Manuel zena.

Leendabiziko garaietan gaizki ibiltzen giñen, mutillak soldadu baizeuden; eta, esandako lan oriek bukatu ondoren, negua gaiñean izaten baigenduen.

Ganadu asko eta belar gutxi, otea ekarri bear, Gero, batzuetan makinarekin txetu bear; beste batzuetan, trabazarekin otaskan.

Arbi-osto eta beste belarrik baldin bazen, obeto. Ote gaiñean, ura ere txetu, otea gozatu egiten zuela, alegia, Beragarria bezala, arbia, belarra, erremolatxa ere bai; eta, belar ondutakoak bukatzen zirenean, lastoa. Ura zen janaria.

Orrela mantendutako ganaduak, bai ateratzen zirela ille gogor askoarekin.

Goizetan, leenengo, sagar-azala edo patsa ematen genien. Pats au, sagarrari, sagardoa kendu ondoren, gelditzen zitzaiona izaten zen.

Barrika zaarretan, edo aizerik artuko etzuen lekuetan, jarri eta jaso bear izaten zen, ondo zanpatuta, usteldu etzedin.

Leku batzuetan, pats-zuloa deitzen ziotena izaten zuten. Barin etxean, adibidez, pats-zulo aundi bat izaten zen, eta an patsa sartu, ondo zanpatu, eta gero negu guztirako pentsua izaten zen, beste pentsurik ekartzea zaila izaten baizen.

Etxeko baba eta artoa, umatu berriko edo esnetako beiarentzat izaten zen. Aieri bai, benetako pentsua emango zitzaien, artaburuarena-edo, Txalaka'ko errotatik ekarrirako iriña.

Orduan giro txarrak egiten zituen: negu gogorak, jela eta elurrak, txistu-ots fiñarekin sapa-sulotik aizea sartzen zela.

Egurra naikoa izaten zen inguruetan, eta ari eskerrak konpontzen giñen. Egurra puskatzen aritzen giñen artean, ez genduen otzik sumatzen. Baiña gero bai.

Su ondoan jartzen giñen; eta, gaztain erreak janez, ipuin zaarrak kontatuz, *kusi-makusi*'ka jolastuz eta abar, orduak pasatzen ziren. Otza orrela menderatzen genduen.

Lurreko sua izaten zen; eta, esaera zaarrak dion bezala: aurretik berotu eta atzetik oztu.

Bukaeran, amonak errosarioa errezatuko zuen, eta oera.

Biamamonean, itxurazko eguraldi edo ateri bazegoen, ganadua gobernatu. Leenagotik, otea ekartzera joaten giñen. Ura ere billatu

egin bear zen. Orduan etzen izaten gaur bezelako aukerarik.

Gaur egun, bide asko otez josiak aurkitzen dira, ezin pasarik. Garai artan, berriz, bidez-bide joan da oterik ezin billatu.

Sardea, igitaia, zakua eta soka bizkar gainean artu eta mendira joaten giñen, eta askotan urrutira gainera. Errenderi'ko itxituretaraiño ere joaten giñen. An sartzea debekatua izaten zen, eta zaindari bezala goardak egoten ziren.

Muga auetara ere joan izan giñen, baiña gauetz, illargi-argiarekin, lapurrak bagiña bezala. Ni neroni, eta egia esan bearrean nago, ote-lapurretan asko ibillia naiz.

Suantza basarriaren ondoan bazen Sasti'ko Perikoren Barrendia deitzen zioten leku bat. Ote ederra izaten zen bertan; ta, berak mozten ez baizuen, ni saiatzen nintzen ura garbitzen. Berak ala esaten omen zuen:

—Zein demonio ibiltzen ote dek emen ote ebaiten, nere baimenik gabe?

Suantza'ko Antonio zenak esaten zidan neri ori. Ura ere laguna nuen. Baiñan nik otea bear eta artu egiten nuen. Baita beste zenbait lekutatik ere.

«Berrak begiak gorri» esaera zaarrak dion bezala.

Ala ere, ez dut uste, ote aiengatik kontzientziko karga aundirik daukatenikan.

Gaur egun ere, obe litzake orduko ni bezalako ote-lapur asko izango balitz. Men-

diak, beintzat, garbiagoak aurkituko genituzke.

Otearena goizeroko lana Martxo inguru aldera arte; eta, arratsaldean, gorotza edo ximaurra eraman zelaira.

Lan au xixterakin bizkarrez egiten genduen, ganadu eta gurdiak belar-soroa ondatu egiten omen zutela; beorrak, berriz, anka-zuloak egiten omen zituela. Ura komeria! Guk egin bear lana bizkarrez.

Beste egun batzutan, sagar-ondoak garbitzen aritzen giñen, ximaurra bota azpi ondoan, adar zaarrak kendu eta abar.

Eguraldi txarra izanez, eta bestetarako giororik ez bazen, aitzur-kertenak egin, segarenak, xardearenak; arrastalo eta eskuareak egin, zaarrei ortz berriak jarri, silla edo aulki bat edo beste egin, eta abar.

Lan auetan sasi arotzak bezala aritzen giñen; eta, orrela giñen artean, etxeko serbitzurako naikoa.

Garai aietan, eiza ere ugari izaten zen: ollagorra, egabera, erbia, zozo, biligarro, aate, eta zer ez? Baiñan etzegoen tiro bat botatzerik, oso debekatua baizegoen. Baimenarekin zeuden eskopetak, errira entregatuak baizeuden.

Ala ta guztiz, baziren beste asko gordeta zeudenak. Nik, bi gutxienez non zeuden banekian beintzat.

Leenengo eta bigarren urteak orrela joan ziren: eskopetak, errian entregatuak batzuk,

besteetan etxeetan gordeak, eta aal zuenak aal zuena egiñez.

Baimena etorri zenean, errira joan ziren eskopetaren billa. Baiña, ordurako, eskopetak anka egiñak... Garai artan egin ziren: zuena gabe eta etzuen a jabe, edo-eta leendik bat zuena, bi edo iruren jabe... Orrelako kontuak.

Nik ez nuen ezer egiterik, gaztea bainintzen. Baiñan baimen askorik gabe asi nintzen eizean irugarren neguan.

Txakur bat bazen basarrian. *Sol* zuen izena. Geroztik, eduki ditudan ollagor-txakur guztiei, *Sol* jarri diet izena.

Basarriko ollagor-zakur ura oso ona zen. Berak erakutsi zidan neri ollagorretan. Berak billatzen zituen, eta bai nik ondo ikasi ere non egoten ziren, zer nolako aldaketak egiten zituzten, eta nola ibiltzen ziren.

Au irakurrita, askok esango dute bearbada:

-Onek ere botako dizkik ederrak!

Eiztaria izaki ni, eta orrelako fama baidugu eiztariak. Baiñan esaten dutena, egia da.

Leenengo ollagorra, alderagi tira nuelako erdia lurpean sartu nuen.

Kartutxo asko ez nituen izaten, eta lurrera tira bear, segurukoa alegia, bein altxatu ezker, segurantzirik ez baida izaten. Lurrera begira ibiltzen nintzen, ia bi begiak aterean.

Ortik aurrera ikasi nuen. Lanak berak erakusten du askotan nola egin.

Leenengo neguan bederatzi il nituen. Nik

ollagorrak ekarri eta amonak saldu. Bost edo sei pezeta edo orrelako zerbait ordaintzen zizuten garai aietan Oiartzun'go Estankoan.

Denak etziren saltzen. Etxean ere jaten ziren batzuetan.

Leendabizikoetan, etzuten nai izaten nik eskopetarik artzea. Arrazoi-faltarik etzuten, arrixku aundia baizegoen eskopetarekin. Baiña, nik, iñork uste gutxienean, eskopeta eta txakurra artu eta erre kara joaten nintzen.

Ez nuen urrutira joan bear izaten: Olatz'ko altzuir¹, edo Lantxerreketa'ra, edo Arbid'ko txarara, edo Eldotz'kora, eta abar.

Amabost urteetarako, oso trebea egiña nintzen ollagorretan.

Ondorengo neguan, banuen, edo egin nuen, eizerako laguna: Barin basarrian egoten zen Joakin Baztarrika bera. Errenderi'koa zen; baiña bere osaba-izebak or izaten zituen Barin'en, eta bera ere or egoten zen. Biok ibiltzen giñen eizean, gure *Sol* zakur orrekin. Ollagor asko iltzen genituen.

Gure *Sol* txakur orri erakutsi ziona, Barin'go Joxe Mari izan zen. Txakurra gaztea utzi zuen, eta ondo erakutsia. Bera, Joxe Mari, gerrara soldadu eramán zuten, eta an gerran il zen. Jainkoak zerua diola.

Urte batean, txakurrik gabe egon giñen. Lezo'ko beterinarioak eramán zuen. Bera ere

¹ Altzui: altzarudi. *Pago* itzetik *pagadi* datorren bezela, *altzauri* itzetik *altzauridi* dator. Eta, oi danez, erriak izketan erdia jan.

eiztaria zen, eta afizioa izaki. Zerbait ordainduko zuen, noski.

Gu, urte ortan, batere txakurrik gabe gelditu giñen. Baiña, ala ta guztiz ere, ollagorrrak iltzen genituen, eta aurrera.

Gure txakur ori, amairu urtetik amalaura, egun batetik bestera, batere arrastorik utzi gabe galdu zitzaigun; eta gero berritotik asi bear zakurrekin.

Orrela izaten ziren gure neguak.

Oraindik ere badira, ollagorrrak ez duela entzuten esaten dutenak. Baiña oso deskuidatuak daude. Ori pentsatuta ez egon. Ollagorrrak entzuten du, bai; eta ikusi, berriz, azkar.

Negua joan eta udaberrira sartzen giñenean, lana ugari izaten zen: lurrak goldatu; leenengo paotxa edo kalikola ebaki; udaberrriaren sarreran arbolak aldatu eta txertatu; leendabizi gerezia eta mizpira; gero, Martxoan, sagarrak.

Ortik aurrerako lanak ere jakiñak izaten ziren: lurrak antolatu, artoa, alfalfa, tepla eta abar lantzeko.

Ni amabost urteetara iritxi nintzenean, gutxi gora-beera, orduan asi ziren gauzak okertzen.

Ogia, leenengo belztu; eta gero gutxitu.

Artoa naikoa izaten zen, eta orri esker. Txalaka'ko errotara joan, eta arto-truke andik iriña ekarri. Taloa eta esnea izaten genduen; potajea, sardin zarra, arrautza eta patata ere bai. Era ortan etzegoen goserik, gu-

rean beintzat. Baiña gauz ona denbora gutxi-ko, esaera zaarrak dionez.

Laister asi ziren errotak ixten. Gipuzkoa osoan beintzat. Naparroa'ko auzo-errietan, berriz, irikiak denak. Gu, nonbait ere, ez giñen kristauak izango, agintari aientzat.

Errota-arriari, *prezintoa* deitzen zioten txartel edo orri batzuk itsasten zizkioten, goiko eta beeko arria bat egiñez. Era ontan, norberetzako ere ezer egiterik etzutela gelditzen ziren errotariak.

Leengo Karrika'ko errotaria, ura bai zela gizon azkarra eta listoa. Ark ganbaran jarri zuen errota, beeko uraren indarrarekin, ardatz luze bat beetik goraiño pasatzen zuela. Orrela, beeko errota-arriak batera ibiltzen ziren jira-biran, eta jarritako *prezinto*'rik ezin autsi.

Berarekin itz egin, gau batean eraman artoa, eta urrengo gauean billa joan. Orrela zen tratua.

Olatz'tik Urdakone parajera joaten nintzen; andik, Oiartzabaleta'ra; gero, larrebidez, Erreti basarriko zelai gaiñetik, Erretizarrene etxean zear, Karrika'ra.

Baiñan orko lanak ere bukatu ziren. Atso sorgin batek salatua izan zen, eta multa aundia eman omen zioten. Famili guztia betiko ondatu zuten; eta zergatik, eta lagun urkoari on egiteagatik.

Guk aurrera begira ere zerbait egin bear, ta Aranatz'era joan bear zela esan ziguten. Orrela atera giñen emendik, igande-goiz ba-

tean. Iru lagun giñen: Joxe Anatxuri'koa; Esnao'ko Simon, Joxeren illoba; eta ni, Maria-no. Nik beorra neukan; eta aiek, astoak.

Goizeko iru ta erdietan irten giñen emendik, eguraldi ederrarekin. Ego-aizea zegoen. Bidean eiztari asko ikusten genituen, batez ere Burnaiztieta eta Pagolleta inguruetan. Eguna argitu-zai zeuden.

Eiztari batek onela galde egin zigun:

-Nora zoazte?

-Aranatz'ko errotara -gure erantzuna.

-Eta nondik zatozte? -berriro ark galdera.

-Oiartzun'dik -guk.

-Oiartzun'dik, alajaiña, bertan errota besterik izaki ez eta!

Anatxuri'ko Joxe zenak onela erantzun zion:

-Errotak bakarrak izan balira, lana egingo luteke. Baiña kontrario asko baidago, kontrario asko!

-Eta zuek, uso zai? -berriro Joxek.

-Bai, alaxe gaude; eguna argitzen due-nean, etorriko ote diren.

-Bueno! Bagoaz! -esanez, agurtu genituen.

-Bai! Agur, jaunak!

Pagolleta'tik Aranatz'a, ia beste bi orduko bidea. Noizbait iritxi giñen errota ortara, eta gu baiño leenagotik joandako jende asko ikusi genduen an. Gu, zortzi ta erdietarako an giñen; baiña besteak, leenagotik joanak.

Errotari orrek Ixidro zuen izena; eta bere emazteak, Agustina. Berak esan ziguten,

arratsalde arte ezin zutela gurea moldatu; eta guk, berriz, antxe egon bear.

Bertan bazkaldu genduen; baba txea urdai-pusketa batzuekin. Eta gero, itxogitera. Bostak alderako prest giñen.

Bi errota ari ziren orduan lanean Aranatz'en, bata urarekin, eta bestea eletrikoa zen. Baiñan, ala ere, ezin eman abasto denentzat.

Artean an egon giñen zai. Ez genduen iñor ezagutzen; eta txorikumeak kabian ao zabalik egoten diren bezelaxe, gu ere.

Bostetan irten giñen andik, eta illuna. Oraindik, garai artan, ordu zaarretan geunden.

Aranatz'tik Pagolleta'ra, eta gero Burnaiztietara ere bai, ondo etorri giñen. Baiña andik Exkax'era, gaizki. Nik banuen linterna bat eramana; baiña bonbilla erre zitzaion, eta gero argirik gabe geratu giñen.

Pago azpia, naiz-eta garai ortan ostorik gabe egon, oso illuna zegoen. Tartean erreka-zulo asko genituen. Jendeak gutxi ibillitako lekuak beintzat. Naiko lanak izan genituen. Abereak aurretik igesi; eta gu atzetik. Ez giñen beintzat nai orduko kamiora iritxi.

Eskax'etik, kamioz-kamio, Azain edo Aizegain etxe arte. Gero, andik, bide zaarrez, Arandan eta Sorondo etheen artetik, Ozentziyo eta Sastarre'ra. Ta, Xauxarre'n barrena, Anatxuri'ra.

Bi lagunak or utzi, eta ni, Eldotz'en barrena, Olatz'era, etxera, Urdakone'n zear.

Urrengo biaje edo txandarako zer egin esan ziguten:

—Ez egon igandeari begira. Gauerako onera etorri. Exkerra'ren Bordan afalduko duzute. Lotarako lekua ere, bertan izango duzute.

Errotako nagusia eta Exkerraren Bordako nagusia, biak koñadoak ziren. Exkerraren bordako senar-emazteak, Juan Joxe eta Iñaxi ziren. Onek, etxeko umeak bezala artzen ginduen.

Taberna bezala izaten zen etxe ura, eta jende asko ibiltzen zen lekua zen.

Gau batean, eman zigun afaria Iñaxi orrek, eta ondoren esnea ere bai. Guri motel xamarra iruditzen, eta berak ere antzeman zion, noski:

—A!... Zuek gatzarekin artzen duzute esnea. Gu ez baigaude orrela oituak. Guk esneari azukrea botzen diogu. Baiña ori azkar moldatuko dugu —esan zigun.

Beti ikasten ari gera. Denak aiek bezalako personak balira, ez litzake gaur dagoen aibat naaspil izango munduan zear.

Gau batez, errotako nagusiak, ezin zuela artorik io esan zigun; eta ea Igantzi'ko erro-tara joango ote giñen.

Ara joan eta an ere oso ondo artu ginduzten.

Goizalderako egingo zuela lana, esan zigun nagusiak; eta artean bere basarrira, bere guraso eta familiarengana, joateko.

Joan giñen, eta bai bertan afaldu ere

ederki: patata-tortilla, urdai azpikoa, eta gaztain erreak ondotik, Bukatzeko, esnea.

Gero, errotaren ondoan zegoen iratzez betetako legorpe batera sartu giñen, eta bertan lo egin.

Urrengo goizean, eguna asterako, ekin genion bideari. Bidean gentozela, Anatxuri'ko Joxe orreri or gogoratu zitzaion, urrengo txandan Lesaka'ra joan bear genduela.

Bai joan ere. Goizean-goiz irten eta iritxi gera Ugarte'ko errotara, eta an onako gauza au entzun, onela esan baiziguten beintzat:

—Leku txarrera etorri zerate, mutillak. Bi eguneko lanak artuta dauzkat; eta obe duzute, emen gelditu baiño, Igantzi'ko errotara joan.

Bai guk alaxe egin ere. Ijiñoen antzera, asto eta beorrak artu eta Igantzi'ra. Bertako errotara iritxi giñeneko, eguardia bazen, eta errotako nagusiak auxe esan zigun bereala:

—Egunez ez daukat egiterik, emen ere gauzak okertzen ari baidira. Utzi emen artoa. Or, goiko mendi-tarte ortan, badago borda bat, eta ara eraman abereak. An egon illundu arte. Lesaka'tik etortzen baidira guardiazibillak; eta, bururatzen bazaiote, kapaz dira artoa kentzeko.

Errotan zerbait jan genduen: guk eramandako bokadilloa, bertako nagusiak ardoa ematen zigula; eta andik bordara.

Bazterrean, eta esiaren barrenean, baze goen gaztain-pilla bat. Gaztain gordiña janez,

arratsaldea antxe pasa genduen, otzak kuxkurtuak, jela eta orma botzen baizuen.

Illun-batsa iritxi zenean, errotara joan giñen. An abereak utzi eta nagusiaren familia-rengana afaitera. Leen ere izanak giñen, eta beti ere konfiantza geiagorekin. Aurreko txandan bezala afaldu, eta leengo legorpera lotara.

Goizeko bostetan, abereak kargatu eta etxerako bidean jarri giñen.

Errotatik onuntz, San Juan iturria baiño leenago, kamineroen etxea zegoen. Errotariak askotan esaten zigun, aien beldurra zeukala, eta andik pasatzerakoan ixilik ibiltzeko. Ixtillu gorria jarri zigun orrekin. Abereak perrratuak, eta kamioan ixilik joateko, ala jainkia! Beste bi aldiz ere etorri giñen orrela, eta beldur aundiaz gaiñera. Etzen ezer gertatu, Jainkoari eskerrak.

Gero, Goizueta aldera jo genduen. Etxeko nagusia, Nikolax, eta ni, biok igandearratsalde batez gogoratzen naiz nola irten giñen Olatz'tik; eta, Baringarate'n barrena, Aldura, Malmazar, Urdaburu mendia esku-bitara utzi eta, Zutola'n zear, Pikorrene'ra. Andik Petrine'ra; an erreka pasa egurrezko zubi baten gaiñetik, eta bereala Xantux'ko lepora. Andik, kamioz-kamio, errotara. Errota onek. Erroteta zuen izena.

An artoa utzi, iriña artu, eta ostera lengo bidetik etxera.

Petrinea'n taberna edo ostaturia bezala izaten zen. Apari-merienda goxo bat egin gen-

duen, su ondoan bero-bero jarrita. Negua zen eta gauez etxeratu bearra genduen, basoko ontzen orrua entzunez.

Gero, aurrera, beste biraje bat bakarrik egin nuen Aranatz'era. Larunbat-arratsalde batez izan zen. Errotan Ixidrori artoa utzi eta Exkerraren Bordara joan nintzen afaitera.

Bertan afaldu, lasai lo egin, eta urrengo goizean bertako familia eleizara mezetara; eta ni, berriz, aberea errotan kargatu eta etxeko bidean jarri nintzen. Eguraldi bikaiña eta zoragarria zegoen. Eguerdiko amabietarako Olatz'en nintzen.

Iru-bat egun aurretik, aireplano edo egazkin bat eroria zen Artikutza eta Aranatz'ko muga xamarrean. Aranatz aldetik jo zuen mendiaren tontorra, eta bertan txetu zen. Orretarako, aidean aurrez su artua zen. Bai omen ziren gizonak eta mutillak, arboletan adarretatik zintzilik gelditu ziranak.

Egazkin ori alemana omen zen. Alemanak, garai artan, indartsu zebiltzan beren egazkiñekin; eta eroritako egazkin ori, orieta-ko bat omen zen.

Jende asko joan zen egazkin au ikustera. Nik bidean egiten nituen topo; ni etxera, eta jendea egazkiña ikustera.

Au izan zen, abereekin errotara egindako nere azkenengo birajea.

Errota-gai ontan, egia esan, Aranaz'tarrak eta Igantzi'tarrak ondo portatu ziren gurekin. Guk ezin ordaindu, iñola ere, aiek egindako mesedeak. Beti gogoan izango ditugu. Baiña

eskerrak nola eman ain biotz oneko jende orri? Bizia zor diotegu, esate baterako; eta emen gelditzen da betiko idatzita.

Orrenbestez, artoaren lanak eta ibillaldiak utzi gënituen, urrutikoak beintzat. Bertako errotak iriki ziren.

Ogia ere asi zen; baiña estraperloan edo kontrabandoan. Ogia mugaz arunztik ekartzen zen. Baiña guk Goizueta'tik ekartzen genduen. Baita Arano aldetik ere, Arranbide'tik.

Arranbide benta zaar ontara, Urdaburu mendia ezkerretara utzita irixten giñen. Leen Goizueta'rakoan eskubira uzten genduen bezala, oraingoan ezkertera.

Pako Azpiroz, Okillegiko zentral edo argi-indar etxean lana egiten zuenak, ark asko ekartzen zuen.

Emen, Gipuzkoa'n, neurri juxtuan zegoen; eta jendea norabait jo bearrean aurkitzen zen. Basarritarra nonbait ere or. Garai artan, naiko aberatsa izaten zen; ez noski diruz, baiña bai zertxobait jan-kontuan.

Kale aldean, ordea, etzegoen giro.

Boniatoa patataren ordez; aza edo beste berdura pizar bat, eta ura ere oliorik gabe.

Esne pizar bat, nonbaitik sortzen bazen, eta kafearen ordez garagarra errearen antzeko bat, malta deitzen ziotena.

Ogia izena besterik etzuen zertsu batetik beste pusketa bana.

Zigarroa erretzen zuenak, rasionamenduan ematen zutenarekin ezin egon. Patata-

ren ostoa sekatu, eta ura erretzen ikusi izan ditut. Tabako beltza egitea debekatua egoten zen; baiña, ala ta guztiz ere, basarritarrak egiten zuten. Mendian txondar-zulotan, edota aal zen lekuan egiñez, or ibiltzen ziren. Etxera ekarri ondoren, ganbaran edo aal zen gordeeneko lekuan sekatu, eta gero txikitu eta erre.

Neguan, sukalde-bazterrean giro izaten zen. Aitonak erretzen asten zirenean, eta gu kanpoan baldin bageunden, urrutitik sumatuko genduen tabakoaren usaia.

Beste garai batzuk ziren aiek. Zakurrak etzuten zaunkarik egin bear izaten. Sendagi-leak ere etzuten rejimen edo neurriko gauzetan iñor jartzen, gaur egun edozein jartzen duten bezala. Koipe geiegi artzen zuelako, etzen iñor gaixotuko. Eguzkiak jotako belarra bezala egoten baizen orduan jendea.

Garai artan, Salbatierra aldean naiko patata izaten zen; baiña ezin ekarri. Trenak ondo zaituta egoten ziren; eta, gaiñera, jendeak ondo miatuak izaten ziren. Eta, jeneroa arrapatu ezkerro, kendu eta ezer gabe etxera.

Bizitzeko jan egin bear, eta ura ere debekatua. Gaur egun, droga errezago ekartzen da, orduan jatekoa baiño.

Nik, nere morroi-lekuan, jateko faltarik ez nuen izan. Baiña nere etxean zer gertatzen zen ikusita nago.

Guk, basarrian, beti zerbait izaten genduen. Negua bazen, amonak taloak egingo zituen. Labatzetik zintzilik jarriko zituen.

Neskamea deritzaion tresna, beraren gainean. Talo-pala ere bai. Ondoren, bi edo iru jira eman; eta talo-burnian tente edo txutik jarri.

Adarrekin edo zotzekin —altza zimela oberena —sua egingo zuen, auspoarekin aizea emanez, eta orrela sarritan jarriko zuen otordua.

Esnea egosteko pazia ere an edukiko zuen. Beste tupiki edo lapikoren bat ere an izango zuen.

Tximistak argia kentzen zuenean, erramu bedeinkatua botzen zuen amonak surtara, «*Sancta Barbara, ora pro nobis*» esaten zuela. Ondoren, kandilla edo krisellua pixtuko zuen, Arditurri'n ibiltzen zen trenak baiño ke geiago botzen zuena.

Beste lan bat au izaten zuen: kazo bat urarekin jarriko zuen surtan; eta, irakiten asten zenean, kafe eta txikoria botako zizkion. Gero, tenazak artu, auekin iliki puska bat sartuko zuen kazoan, eta kafea prest. Ilikia, surtan egoten zen egurraren brasa-puskari esaten zitzaion.

Afaltzeko garaiean, etzituen erreko egin-dako talo denak. Batzuk utzi, eta biaramonean gosaltzeko erreko zituen. Gero esnetan sartuko zituen, eta aien zopak in gosari ederra.

Talo egin zarra zopetan esnetan sartu eta askoz ere ohea da, talo egin berria baiño.

Talo erretakoa sobratzen bazen, kanibeta edo labanarekin ebaki edo txikitu, esnetara

bota, egosi eta ura jaten genduen. Eta ederki gelditzen giñen, otea ebakitzera joateko.

Sagarra naikoa izaten zen; eta, bildu ondoren, ganbaran gordetzen genituen, belar tartean jarrita. Onentxoena, udazkenean biltzen ziren.

Pats-zuloa, sagar beltza geiena. Errege-sagarrik etzen izaten. Beste klase asko bai: olio-sagarra, ixpullu-sagarra, mozolua, Lezo-sagarra, auk sagardoa egiteko; markelin-sagarra, masail gorria, Ama Birjin sagarra, Santiago sagarra, San Juan sagarra, libra sagarra, txalaka, udare-sagarra, bizkai sagarra, sagar txuria edo sagar txuiya, burni-sagarra eta gabi-errota. Onenak gorde eta besteekin sagardoa egin.

Sagardoa azkar etortzen zen, gazia asko bazegoen. Azaroan bukatzen ziren sagardoa-ren lanak.

Eskuko makina zen, jotzeko erabiltzen zena. Ondo esateko, motorrarekin ibiltzeko egiña zegoen makina zen, bi engranekoa; baiña eskuz ibilli bear, bi bolanderakin.

Lanean lau persona izaten giñen: bata, sagarra botzen; bi, bolandera banatan; eta bestea, patsa kentzen. Au da: sagar txetua ardatzaren jiran jartzen.

Dena bukatzen zenean, afaria. Gauez egi-ten baizen lan au.

Biaramon-goizean, dena ondo pillatu, lakuak gaiñean jarri, gero patsolak, kuadrilla-koak deitzen genizkion, lau kantoiko egur-rrak, iru aldean: leenengo luzeak, lau; gero,

beste lau motxagoak; eta, azkenik, beste bi gurutzean, besteak baiño lodiagoak. Beren gainean ardatzaren zanpagarria jarri eta estutu. Ura ere eskuz egin bear.

Estutzen zenean, sagardoa tinira ixurtzen asten zen. Tolaretik beera tubo bat zegoen, bean tinia, eta andik sagardoa ontzitara eramaten zen. Zulotik upel gainekoa sartu, eta porrona edo baldeakin tinitik sagardoa artu, eta upel gainekotik ontzira bota. Estutzen zenean, tresnak kendu. Palarrakin ebaki, palarkin pillatu, perekiakin berdindu, erratz batekin garbitu, berriro tresnak jarri eta estutu. Orrela bi egunez.

Gero, tresnak kendu, aitzurrarekin patsa puskatu eta pats-zulora bota. An ondo zanpatu, eta negurako pentsua.

Orrelaxe izaten ziren udazken eta neguko lanak.

Azaroan, eguraldi ona bazen, lurra antolatu, baba aundia erein. Ontarako, ilberaren zai egoten giñen. Geroxeago, baba txearen lanak.

Udaberrian, otearen lana utzi orduko, arbia, lastoa eta kalikola makinaz txeeu, ganadua jana segarekin asi arte. Paotxa, Martxoan. Maiatza etzen berealakoan etortzen, eta orduan berriz segarekin.

Sega artu, baita ere potoa bere arraitzarekin, ubal batekin gerrian lotu, eta belarra ebakitzera. Ortarako, aurrez, sega txingudia eta mailloarekin pikatu, gero arriarekin zorroztu eta aurrera.

Neguan, astean bein, azpiak ateratzen ziren, azienda edo ganadua bero egotearren. Gorotzaren beroa ematen zitzaion ganaduari. Udaran egunero ateratzen ziren azpiak.

Gorotza legorragoa izaten zen neguan, udaran baiño. Au janariarengatik zen. Otea eta legorra neguan, eta gorotza legorragoak.

Lana ere geiago ematen zuen. Batek ozpiko edo ukullu-aitzurrarekin gorotza edo azpiak arrotu; eta besteak atxarrastalua edo zalabarduarekin kanpora bota.

Udaberrian azpiak maizago ateratzen ziren, ximaurra guriagoa izaten baizen, eta ganadua geiago zikintzen zen. Ankak garbitzera, larrera bidaltzen genituen.

Maiatzaren leenengotik, lurrak moldatzen asten giñen: goldatu, zoia zanpatu edo berdindu. Zoia, goldeak uzten duen lur endana da.

Garai artan bero asko egiten zuen; eta lurrak, aal zen leenena maniatu bear izaten ziren. Buztin-lurrak baiziren; eta, gogortu baiño leen, azkar ibilli bear izaten zen.

Ondoren, area pasatzen zen; urrena, martín-mallua edo alperra; gero, berriro areakin naastu. Ondotik, aitzurraren buruarekin edo sokil-mailluarekin dantzatu bear. Leku batzutan sokorra deitzen diote sokillari.

Orrela moldatutako lurra, artoa ereiteko prest egoten zen. Leenengo, markatu. Lan au markarekin egiten zen. Marka izena zuen tresnak, iru ortzekoak edo laukoak izaten ziren. Ortzak, egur bati sartuak; arko bat gai-

ñean; eta beste bi makilla tiratzeko. Basarri batzuetan, astoa edo beorrarekin tiratzen zen.

Ondotik, aitzurrarekin zuloa egin eta artoa ereiten genduen. Zulo bakoitzean, bost edo sei artale botzen ziren. Baita ere bi babarrun-ale, zulo batean bai eta bestean ez. Eta gero aitzurra edo arrastaloarekin tapatu. Arrastaltoa edo eskuarea. Ta urrengo jorrara bitarte.

Leenengo, bostortzekoa edo karrama pasa. Karrama, amar ortzekoa izaten zen. Bostortzekoarekin, abere edo bei bat ibiltzen zen, uztarri motxean. Karramarekin, bei parean.

Uztarria jartzen zitzaien gaiñean; buruan kopetekoak gero; edearekin lotu; gero burularrua jarri, eta arranbillaz lotu. Soka da arranbarrilla.

Karramak, berak izaten zuen zulo bat. An, kurterearen kontran, kabilla sartu eta aurrera.

Buru-soka deitzen geniotenak ere baziren; bi beorren isatseko illearekin egiñak. Perratokitakoan, eta sagar-garraioan genbiltzanean, buru-soka auk erabiltzen ziren. Beste lanetan, soka kañamozkoa izaten zen.

Arean eta zarabandan ibiltzeko, berriz, timoia bi zulorekin erabiltzen genduen. Timoi motz onek zulo bat katearentzat izaten zuen, eta bestea kabillarentzat. Timoia sartu kurterearen, ondoren kabilla sartu, eta lixto! Guk egurrezko kabilla erabiltzen genduen. Zulo

bat zuen, eta andik ede pusketa bat pasa, gero uztarri gaiñekoari lotu, galdu etzedin.

Uztarri gaiñekoa zipotz zimel batekin egiña izaten zen; urritza edo saratsa.

Egindako sare ortan, mendira edo norabait urrutira joan bear zenean, jatekoa, zatoa eta edozein gauza eramaten zen. Buru-larrua jaso, gauzak an sartu, gero tapatu, eta kaixo!

Kabilla gorosti edo agiñarekin egiten genduen. Agiña, piñua dirudien zugaitz bat da; gogorra benetan, eta pozoiduna, diotenez beintzat. Astoa, egur onen ostoa jaten badu, il egiten da.

Bainketa edo Baringarate basarri inguruan asko izaten zen ortatik.

Gure nagusiak etzuen nai izaten burnizko kabillarik. Mendian gurdia irauli-edo gertatu ezkerro, eta kabilla moztu bearrean aurkitu ezkerro, arrixku aundiko gauza zen burnizkoa izatea. Ezin moztu, alegia. Orrelako gauzak gertatu izan baidira.

Auek zirela-ta bei-burutan beti aizkora jartzen zuen, «Zer gerta ere» esaten zuela.

Perratokira Altzibar'era etortzen giñen. Perratzailleak, bat Juanito Sein, nere osaba zen; bestea, Pedro Errero deitzen zioten bat.

Ugaldetxo'ra ere joaten giñen beste batzutan. An Joxe Rekalde aritzen zen. Erdi beterrinario edo albaiteroa zen; eta gaiñera perratzaile ona. Askotan egiten genduen, goizean basarritik onera etorri eta arratsaldean etxera.

Eguraldi txarraren zai jende asko egoten

da. Gero, denak batera ezin. Ori gertatzen zen udazkeneko lanetan: denak batera, iratzearen lanak zirela, sagarrarenak zirela, egurrarenak zirela, eta abar.

Orrela, gero ere esango dutan bezala, pasatzen ziren udazken eta neguko lan aiek denak. Gero, udaberria etortzen zen bere lane-kin: artoa ereitea zela, ondoren belarrak ondu, eta abar. Belarrarenak esango ditut.

Askotan, illunabarrean ebaki, intza gutxiago izaten zen-eta. Goizean zabaldu, atxarrastalo edo ibitaiarekin. Goizean erreza-
goa zen belarra ebakitzea; baiña, leen esan dutan bezala, legortzen zaillagoa.

Goizean-goiz, segak pikatuak egongo ziren. Segak bizkarrean artu; sega-potoa arriarekin, gerrian ubal batekin lotu. Arria bustia edukitzearren, potoan sagardoa botzen genduen.

Iru edo lau lagun aritzen ziren ebakitzen, eta bat zabaltzen, berak botillerotza egiten zuela. Lan au, bero geienez egin bear izaten zen. Edateko, ur-ardoa azukrea botata erabiltzen zen. Kristalezko txarro batean naastu-naastu egin, eta edan. Otorduetan, berriz, sagardoa edaten genduen.

Eguardi aldera, belarrak jiratzeko garaia izaten zen. Batzuk arrastalua, besteak atxarrastalua, egurrezko xardea eta abar; oiek izaten ziren tresnak.

Bazkal ondoan siesta egiten genduen, ordu bete inguruan, eguraldiak nolako segurantzia agertzen zuen. Batzutan ez genduen

siestarik egiten, eta belarrari beste jira bat ematen genion.

Illunabarrean, txorrokatu. Urrengo goizean, intza joaten zenean, zabaldu. Bi jira eman eta metakin asi. Ortarako, aurrez, meta ziria sartua egongo zen. Belarra, legortu artean zabaldua.

Belarrak, iguzkia gorde baiño leen, bildua egon bear izaten zuen, intzarik artu etzezan.

Gero, meta egin, ardo-trago bat edo beste egin, eta beste lanetara: batzuk janariak prestatzera; besteak beiak jetzi edo bildu; esnea iturrira eraman, orain bezelako izotz-lekurik eta frigorifikorik ez baizen orduan.

Orrela aritzen giñen, egunero lan berdiña egiñez, arta-jorran asi arte.

Baziren basarriak, lurra makuakin jiraten zutenak. Laiakin ere bai, beste batzuk. Guk laiarik ez genduen erabiltzen. Makua bai, goldeak ezin zuen lekuan bakarrik, edo baita ere baratzan.

Belar-meta egiteko garaiean, geienezan nerezat izaten zen lan au. Nik ukullu-aitzurra edo ibitaia, geienezan ukullu-aitzurra, erabiltzen nuen. Metaren gaiñean azpitik botzen zen belarra. Azpikoak, leendabiziko, atxarrastalua edo zalabardua erabiltzen zuen, meta goratu arte. Gero, bi ortzeko sarde kirten-luze batekin botzen zen beetik belarra, meta bukatu arte.

Bukatzen zenean, muturrean zaku-pusketa bat sartu, lau arriri alanbrea lotu eta

zintzilik jarri, ganbarara sartzeko garaia irix-
ten zen arte aizeak bota etzezan.

Urte-garai ontan, Arranbide'ko bentara bi
edo iru joan-etorri egiten ziren ardoaren bi-
lla. Ardoarekin batera, pattarra edo ttotta
txuria eta gorria ere ekartzen genituen.

Ardoa ekartzeko, zagia erabiltzen gen-
duen, berrogei litro ingurukoa. Ogei eta ogei-
tabostekoak ere bai, izaten ziren.

Pattarra, berriz, botilletan ekartzen zen.
Pattarra ekartzea debekatua egoten zen, eta
ixilka egiten zen. Abereak mendian lotuak
utzi, eta bizkarrez ekartzen genituen Urdabu-
ru'ko mendiaren erdira arte. Lan au, aal zen
girizi edo ezkutu aundienarekin egiten zen.
Arrapatu ezkerro, kendu egiten baizuten, eta
erne ibilli bear izaten zen.

Arto-jorrocketan asten giñenean, auzoak
batak besteari lagunduz, auzo-lanean alegia,
aritzen giñen batzutan. Beste batzutan, jorna-
lean ere bai. Saria, arratsaldeko iru pezeta zi-
llarrezko eta merienda izaten genduen.

Arto-saillaren exkiñean belarretan exerita
jarri eta, kontu zaar batzuk kontatuz, aritzen
giñen. Bein batean, ondorengo ipui au
entzun nuen nik:

Bein, nagusia eta morroia arta-jorran ari
omen ziren; eta, alako batean, nagusiak one-
la esan omen zion morroiari:

—Aizak i: merienda-garaia duk. Beste ba-
sarri ortakoak exerita zeudek meriendatzen,
eta gu emen lanean gelditu gabe. Gu ere exe-

ri egingo gaituk, meriendatzen ari gerala pentsa dezaten.

—Bai, bai —esan omen zuen morroiak.

Exeri omen ziren, bada, biak. Besteak altxa zirenean, gure nagusi-morroiak ere bai. Nagusiak segi lanean. Morroia, berriz, aitzurraren kirtenari eldu eta zutik an omen zegoen, geldi-geldirik.

Nagusiak onela esan omen zion morroiari:

—Zer egiten dek or, artoa jorratu gabe?

—Berdin zaio, nagusi jauna. Beste basarrikoak ni lanean ari naizela usteko dute, eta ez da okerrik gertatuko.

Egun artatik aurrera, nagusiak merienda ematen omen zion morroiari.

Artoa, jorratu aurretik bakandu egiten zen. Bost-ortzekoa edo karrama erabiltzen zen. Leku batzutan txaldarma ere erabiltzen zuten. Tresna onekin, lurra arrotu eta gero aitzurrarekin jorratu, artoak zuzenduz.

Batzuk arto-azia ibiltzen zuten patrikan, eta falta zen lekuan ereiten zen.

Artoari iru jorra-aldi ematen zitzaizkion. Leendabiziko biak artoarentzat izaten ziren; eta irugarrena, azia naasteko. Naasten genituen aziak, paotxa, kalikola eta arbia ziren, gero, negu aldera etortzerakoan, mazka pixka bat geixeago edukitzearren. Lan au Santiago aurretik egiten zen.

Baratzeko lanak ere izaten ziren garai artan: patata eta abar, aza aldatu, koliflora, beste jorraketa batzuk, azelga, porruari bela-

rrak kendu, azenario edo zainoria erein, eta abar.

Abuztu aurretik, berriro ere bi-belarrak ontzen asten giñen. Baita ere patata ateratzen. Gero, arbia erein bear zen.

Abuztuaren erditik aurrera, sagar-lanean asten giñen. Bereala laister udazkenean sartzen giñen.

Leenagotik, abuztuan, artoari tontorra edo lorea kendu bear izaten zitzaion. Gero, gallur ondotik ostoak, babarruna bildu...

Bi-belarraren lanak bukatzerako, sagarrenak asten ziren. Gero, iratzearenak. Bi azkeneko auek, batean geienetan.

Orretarako ere, gurdi zaarra esaten genion tresna zaar bat prestatu bear izaten zen. Kurtitxe motza eta kurtitxe luzea bere ezpatarekin. Ezpata-biurrak kablez edo sokarekin egiñak, ezpataren bi aldeetara tiratuak eta kurtitxeari lotuak. Biurrak ezpatari kontzen diote; eta ezpatak kargari, mugitu ez dedin.

Pirril gaiñean akerrak; gurdi gaiñekoa tentea; eta soka. Gurdi-soka esaten geniona, lodia izaten zen. Soka estutzeko, garrotea.

Agara izena zuen egur lodi xamar bat ere eramaten genduen, gurdia kontzeko. Mendi-bide txarretan ibiltzen giñen, eta, iratze-jorrara ez iraultzeagatik, ibiltzen genduen agara.

Beste tresna bat, berriz, lera deitzen geniona. Au, gorotza edo ximaurra aal zen urrutienera eramateko ibiltzen genduen. Bi-

dez-bide, lur gaiñean eramanez, lan ortarako erabiltzen zen.

Timoi luze bat izaten zuen aurrean, eta kate-pusketa bat atzean, puntuan xulo batekin. Xulo au, kabilla sartzeko izaten zen.

Lera onek kajola ttikia izaten zuen. Gurdiak bai, kajola aundiagoa zuen. Gorotza eramateko kajola oriek, makala zugaitzaren egurrarekin egiñak izaten ziren, lera ariñagoa izatearren.

Sagarra biltzeko garaiean, tresna auek ibiltzen genituen:

Kixkia; au urritz-makilla batekin egiten zen; puntan alanbre lodi bat sartu, okertu, ezterarekin punta zorroztu, eta lixto!

Eztera, pirrilla antzeko, Jaizkibel-arria esaten zioten arri latz batekin egiña izaten zen. Azpian aska bat edukitzen zuen urarekin, arria pasatzerakoan bustitzen zela. Erdian ardatza. Bi anka-lekurekin izaten ziren batzuk. Besteak, batekoak. Orixe izaten zen gure erreminta zorroztaillea. Bertan zorrozten genituen aizkora, aitzurra, eta bear ziren gaiñeko tresnak.

Kixkiaz aparte, sagar-lanetan beste zenbait tresna ere erabiltzen ziren. Sagar-otarra, adibidez, bere esku-lekuarekin.

Sagarra bildu eta zakurra, eta gero andik bear zen lekura.

Oiek bukatutakoan, berriro negua zetorren, eta neguko lanetara: otea ebakitzera, astia zenean ollagor batzuk il...

Garai artan, lagunak ere izaten nituen.

Bat, Lexoti bertsolaria. Ura beti sagar-
arbolaren gainean egoten zen, miura biltzen,
txoria bezala kantari.

Baita ere Barin'go Pedro; ta bere lengusu
Joakin Baztarrika ere bai.

Azkeneko morroi-urte onetan, sagardote-
gira ere asi giñen. Leenengo aldia, Suantza-
'ra. Jai-arratsaldeetan joaten giñen. An jolas-
tokia izaten zen.

Eguraldi ona bazen, mendira. Igande-
arratsalde batez, Barin'dik atera, Borda-
etxe'tik igaro, eta Igantzi mendi aldera joan
bear genduela pentsatu genduen. Barin-
borda'ko txabolara iritxi giñen, eta or etorri
zaigu guarda edo mendi-zaitzallea:

—Kaixo, jaunak!

—Kaixo!

—Arratsalde on.

—Berdin.

Goroxeago, izketatu ondoren, aurpegi
illunez onela esan zigun:

—Ez al dakizute zuek, emen ibiltzea de-
bekatua dagoela?

—Ba guk ez dugu emen kalte aundirik
egingo.

—Berdin duk! Eskusatu egin bear dik, es-
kusatu!

—Bai, bai!... —esaten genduen guk barru-
rako. Ez giñen ostera joango, urrengo txanda
arte.

Orrelako gauza asko ikusiak gera: Egin
bear ziren gauzak, galerazi; eta egin bear
etzirenei, lagundu. Orretxengatik dago mun-

du ontan oraingo naspilla guztia. Mendian ibiltzea personari galerazi; animalia gaixto eta piztiak gallendu; mendiak ote, larre eta piñuaz bete, eta kalean jendea ugaritu, biurrikeriak indartu... Ondo goaz orrela!

Guk gogor egiten genion: mendiko bideak ibiltzeko egiñak zirala; batez ere bere errespetuaz dabillenari, ezin litzaiozkela bide oriek debekatu, personarentzat osasungarri baita...

Orrela ibiltzen giñen gu udara inguruan. Baiña eguraldi txarra zenean, etxean egon bear.

Barin'en, guretzat, jai-arratsaldea erromeri aundi bat bezala izaten zen. Inguruko basarri denetakoak etortzen ziren: Arbide'ko Ismael, Oiartzabal-berri'ko Joxe Garaño, Borda'ko Joakiña, Permiña eta Maritxu, Barin bertako Pedro, Joakin bere lengusua, Manuela, Kontxexi, ni Mariano, eta abar.

Bakoitzak geuren jolasak, eguraldiak agintzen zuen bezala: batzuk tokan, besteak punttuan, soka-saltuan, zarramilluan, kusi-makusietan, eta abar.

Arratsaldea igaro, eta illuntzerako bakoitza bere etxera, birika aize sanoz ondo beteta.

Etxera etorri eta beti zerbait egin bearra izaten zen: ganadua gobernatu eta abar.

Oriek bukatzen genituenean, amona zenak tiñakoa jarriko zuen ur beroaz beteta, anak garbitzeko. Premia ere bai askotan.

Ondoren afaldu, errosarioa errezatu eta lotara:

—Gau ona igaro.

—Bai; berdin.

Gau erdian, oillarra kukurruka sumatzen bazuen, amona jeiki egiten zen. Nik askotan galde egiten nion, ea zergatik jaikitzen zen.

Beraren erantzuna: sua edo brasa egoten zela, eta berak gatza botzen zuela; sorgiñak izaten zirela, eta uxatzeko egiten zuela. Orre-la esaten zuen ark. Goizeko irurak arte oillar-rak etzuela kukurrukurik jo bear.

Ara zer oiturak! Badakizute etxean zer egin, sorgiñak uxatzeko.

Persona bat geiegi galerazten eta itzegiten ari bazaizu, kanpotik etorria izanez, eta azkar joan dedin nai baduzu, berak ikusi gabe eskoba bat artu eta jira eman, kirtenaren puntak lurra jotzen duela eta erratsa gora daukala. Ori omen da xixtimarik onena, traba eta enbarazoa kentzeko. Au bera ere sorginkeri ederra, alajainkia!

Gu Barin'era ez giñen beti jolasera joaten. Belar-lanetara eta sagar jotzera ere joaten giñen. Lan au gogorra izaten zen.

An zuten makina edo tresna arek, lau lagun bear izaten zituen: alderdi batetik bi eta bestetik beste bi. Beste lagun asko ere bear izaten ziren: batzuk sagarra gora eraman; besteak sagarra makinari eman; besteak patsa kendu. Patsa, sagar txikitua da.

Etxekoa zenean, famili osoa. Kanpokoak

zirenean, sagar-jabearen familikoak eta beste laguntzailleak.

Mutillak soldaduzkatik etorri arteko garaia izan zen gogorrena. Orduan etzegoen txorakeririk. Indarra bear baizen.

Ondorenean, sagarra jotzen bukatzen zenean, ederki. Afari ederra egiten genduen. Etxeko sagarra zenean, etxeko afaria. Sagarra aldameneko basarrikoa bazen, berak ekarriko zuten afaria: Baringarate-goikoak bi alderdiak; Altamugarri baserriak; Arbide atzekoak esaten ziotenak, aurrekoak Olatz'en egiten baizuten; Borda'koak eta abar.

Sagar jotzea bukatutakoan, zena zela, broma ederra izaten zen. Janaria naikoa eta edaria sobra.

Bertso batzuk ere kantatzen ziren: Julian Zabala, Eusebio eta Jeronimo bere bi semeekin; Borda'ko Koxme eta Sebastian; eta ni ere bai, aien tartean saltsan sartua, naiz-eta mutil koxkor bat besterik ez izan.

Batzuk eguna asterako etxeratzen ziren; beste batzuk, berriz, eguardi alderako.

Bat bazen, bein ere presarik izaten etzuen: Domingo Ermita'koa. Baringarate'tik ez-kerra artu eta Altamugarri bitartean dago etxe ori.

Bein, Domingo ori sukaldean kulunkan omen zegoen. Buruan etzuen ille bat bakarrik. Alako batean, or sartu zaio eguzkia leiotik; eta, buruan beroa sumatu zuenean, onela esan omen zuen, eskuak buruan jarriz:

-Ara, ara: Eklix pixka (*eklipsea*) bat-batean!

Parra franko egiñak izango ziren bazterrekoak, noski. Urte asko da ori zela; baiña, ala eta guztiz ere, gogoan daukate oraindik gaur egun, bizi diranak beintzat.

Sagar jotzeko garaia zenean, gu Olatz'tik iru joaten giñen, bear zen lekura lanera: Daniel, Antonio eta ni, Mariano; Borda'tik, berriz, Manuel, Sebastian, Xanti eta Antonio, alderdi batetik; eta beste bizitzatik, Koxme. Onek Antxo'ko muellean egiten zuen lana; eta, ara zijoan batean, trenak azpian arrapatu ta il zuen. Baringarate'tik, Julian eta Euxebio eta Jeronimo bere semeak joaten ziren; Barin bertakoak, Andrex, Julian, Pedro eta Joakin; Ermita'tik, Domingo eta bere seme Andrex.

Denentzat izaten zen lana: batzuk sagarlanean, besteak otordua jartzen eta abar.

Tolarea aundia zen, zurarekin egiña. Oraindik ere an egongo da, bere pats-zulo ta guzti, nai duenak ikusi.

Barin ortan, ote txikitzeko xixtima berri bat asmatu zuten garai artan. Ardatz bati bolandera bat jarri; gero, mandoa lotzeko ubal edo korrea esaten zioten bat jarri; makinak beste bolandera edo tanbor bat izaten zuen; mandoari buruan zaku bat sartu, mariatu eta naastu etzedin, eta ari arre esan da jiraka asten zen. Laister egingo zituzten otearen lanak.

Ondoren, arbia edo leen aipatutako bera-

garría otaxkan bota eta trabazarekin gozatu, eta txikitu arte aurrera.

Barin basarria Errenderi'koa da; Olatz, berriz, Oiartzun'goa, erdian muga daukatela. Baiña, ala eta guztiz ere, erri batekoak beste-koari laguntzeko kezkarik gabe izango giñen. Ala bear ere! Guztiontzat komenigarri baida ori.

Suantza'n ere izaten giñen sagar jotzen. Or ere zurezko tolarea zen. Makina, berriz, errex ibiltzen zena. Bi lagunek ibiltzen zuten. Bestetan baiño denbora geiago bear zen; baiña lana errexagoa.

Portugal basarrian ere iritxi izan giñen. An ormigoizko tolarea zuten; baiña makinarik etzuten eta sagarra pisoiakin zanpatzen zen. Orrela aritzen giñenean, ematen zen kolpearekin sagardoa ere ederki zabaltzen zen. Langintza urria eta penagarria izaten zen.

Arbide basarrian ere izaten giñen. Or ere ormigoizko tolarea zuten, eta sagarra, emen ere, pisoiakin zanpatzen zen. Leen aipatu dutan bezala, langintza luzea izaten zen; baiña onek ere izaten zuen bere alderdi ona.

Pisoiakin txikitutako sagarra, makinarekin egiña baiño obetoago gelditzen zela esaten zuten; sagardoa errezago kentzen zitzaio-lako, alegia. Zanpatzen ari zen garaiean ere, bere zumoaren erdia kentzen baizitzaion.

Mikelintxone basarrian ere izan giñen beste bein. Ango ura izango zen, noski, ma-

kinarik zailena eta gogorrena. Ura zen ura!
Mugitzeko bear zen indarra!

Orrekin bukatu nituen, urte artako sagarraren inguruko lanak.

Orduan tolareak basarri askotan ziren, sagasti asko baizegoen eta sagarra ere ugari; eta, orrela gauzak, basarritarrak urteroko edaria etxean; edaria edo edari-gaia.

Noizik eta bein, kanpotik ere ekartzen zen sagarra; baiña gutxitan.

Gaur egun, zoritxarrez, geiena kanpotik ekarri bear izaten da, leen sagasti ederrak zeuden lekuetan, piñua eta larra besterik ez baidago.

Garai artan, basarritarra naiko ondo bizitzen zen, janari-edariari elduz beintzat. Kallean olakorik etzen geiegi izaten.

Egun batez, basarritar bar Errenderi'ko plazara joan omen zen, berdura, esnea eta beste zerbaitekin.

Kaleko emakume batek onela esan omen zion:

–Zuek, basarritarrak, ondo bizi zerate, ondo! Zuei, tellatuko intzak ere ondasuna ematen dizute.

–Bai zera! –basarritarraren erantzuna–. Ire etxeko tellatuan ere egingo din bada intza! Askok ematen al din iri?

Onok esan nai du, alegia, basarrian ere, jango baldin bada, lana egin bear dela.

Sagarraren lanak bukatu ondoren, txerriren bat izango zen iltzeko.

Txerri iltzaillea, gurean beintzat, Pio Es-

nao basarrikoa izaten zen. Il zen gizarajoa, eta berari ere zerua diola gure Jaunak. Arek iltzen zuen txerria, goizean-goiz.

Orretarako, guk garoa edo iratzea prest edukitzen genduen. Arek txerria il eta segituan, iratze tartean sartzen genduen eta su eman.

Zeuzkan illeak erre; eta, ondoren, urarekin bustiz ondo garbitu eta azal erreak kendu. Au, tella-puxka batekin igurtziz egiten genduen.

Ondoren, laister tripa ebaki edo ereki, eta leenengo lana gibela kentzea izaten zen; eta *aiba!* amonari ematen genion, gosariteko zai eta goseak zeudenak asetzeko.

Beazuna kentzen zion, eta sokarri batekin zintzilik jartzen zuen, legortu zedin.

Gero, edozeiñek aiantzaren bat, edozer egur-ezpal, iratze-txorten edo beste zuztar bat aragian sartzen bazuen, beazun ortatik puska bat jarri, zapi-puxka batekin lotu eta estali, eta, zauri oriek sendatzeko, bera izaten zen erremediorik onena. Ori izaten zen, garai artan, gure sendagintza.

Gibel ori jartzeko, amonak, leendabiziko, neskamea labatzetik zintzilik jartzen zuen. Gero, zartagia tipulaz betetzen zuen, gibela txikitu, eta, tipula bere neurrian ondo zegoeanean, gibela maniatzen zuen; eta ondoren denak maiera.

Gibela fuente batera botzen zuen, bi txarrokada sagardo atera, eta «Au dek gauza, jaunak!» esanez, jatera denak.

Leendabiziko bi txarrokadak edan ondoren, gero zenbat ustutzen ziren etzen kontatzen.

Orduan probatzen ziren barrikak, eta upelean zeuden txotx berriak. Leendabizikoan au ona eta bestea ona, eta azkenerako denak onak.

Orrelako egoera gozoan, aaztutzen ziren lanak eta aaztutzen ziren denak. Egia esan, negua baizen, lana askorik etzen izaten. Txiste eta broma-giro ederra igarotzen genduen.

Pio zenak, iltzalleak alegia, onela esaten zuen:

-Txerria ildako astea eta andrea artutako urtea, onenak.

Eguardi arte, tripako este eta birikak kendu eta zintzilik jarri. Bazkal ondoan, puskatu egiten zen.

Gero, urdai-azpikoak, saieskiak, xolomo eta beste urdai-puska batzuk zerri-kutxan sartzen ziren, gatz larria deitzen zitzaionarekin naastuta. Arri batzuk jartzen genituen gainean dena zanpatzeko, eta ondoren meriendatzera.

Meriendatu ondoren, Pio bere etxera joaten zen, eta gu gure lanetara.

Emakumeak, odolkia egin eta gero tximinik zintzilik jarri. Txorixo-gaia ere, bere baratzuri eta bear zirenekin, prestatzen zen, gero urte guzian familiaren bearretarako janari bezala aprobetxa zedin.

Txerrimoniak ere partitu bear izaten zi-

ren. Ori ere etzen gauzarik onena izaten: txerriaren erdia besterentzako. Baiña esaera zaarrak ere ala dio: «Txerrimoniak ordaiñetan» edo «Txandaka txerrimoniak».

Neretzako etzen gaizki etortzen; txerri-puskarekin joaten nintzen tokian eskupekoa ematen baizuten, eta nik ura bear.

Orren ondoren, arto-zuritzea edo artazuriketaren lanak etortzen ziren. Arto-zuritzaileak, txurikiña alde batera eta artaburua bestera boteaz aritzen ziren.

Multzo bat egiten zenean, sagardo-trago bat edanez, atsedeen-aldi batzuk egiten genituen: txiste edo izkirimiri batzuk kontatu eta *ikusi-makusi*'ka jolastu, tartean eskuarrantza batzuk egiten genituela, farra eta algarra ugari egiñez.

Ura zen, ura, bizi-modua! Elkarri lagunduz, denak kontentu.

Txurikin ori, neguan ganaduari ematen zitzaion. Jateko bezala indar aundirik etzuen izango. Baiña beiaren marruak zerbaitekin ixildu bear.

Baita ere, txurikin orrekin, ostorik biguñenak berezi eta telazko zaku batean sartuz, lastaira egiten zen. Gaztaiñez egindako somierra edo sare-kaja jarri, gaiñean lastaira, eta gero koltxoia. Ura izaten zen gorputza gozatzeko kamaña.

Garai artan etzen izaten orain ainbesteko aurrerapenik; eta, kondizio aietan, arkako-soak ere errez sortzen ziren. Amonak onela esaten zidan:

-I, Maino!

Maino deitzen baizidan.

-Ibitaia ar ezak eta menda-belar mordo bat ekarri ezak.

Nik joan eta ekartzen nizkion.

-Bota oearen azpian, orrek kukusoak iltzen dizkik eta.

Nik botatzen nuen menda-belarra oearen azpian; baiña, ala eta guztiz ere, berdin sumatzen nituen.

Bein, zelaira joan, menda-belarra ekarri, eta koltxoia eta lastairaren tartean jarri nuen.

Urrengo egunean, amona joan zen oea arrotzera, eta or ikusi zuen menda-belar ori. Bereala deitu zidan:

-I, Maino! Zertarako jarri dituk mendak lastairaren gainean?

-Zertarako? Goian dauden kukusoak beerra jeixteko.

-Ai, arraio-arraioa! Iri gogoratu bear zitzaidaken ori ere. Ik egiteko ez duk aundia. Orain arteko markak autsiko dituk ik, motell. Oearen azpian jartzen den mentaren usaia, naikoa izaten duk arkakuso denak uxatzeko.

Txurikiña eta otea janda, ederki egoten zen ganadua, bizkarrean pago zaarrak baiño kozkor geiago zeuzkala.

Urte batez, oso gaizki ibilli giñen. Aizeak meta-belarrak bota zizkigun. Igandea zen; ni, oso gaztea. Aiton-amon zaarrak lagunduz, meta batzuei egurrak jarri eta kontu arazi ge-

nituen. Baiña besteei ezin kontu, eta aizeak eraman zituen.

Egun artan, baita ere, Lezo'ko Iparragirre basarria erre zen. Ederki ikusten ziren suak eta garrak Olatz'etik.

Nolabait ere joan zen urte ura. Ez nago ziur, zein urte zen. Baiña gogoratzen naiz, urte bat edo bi barru, nola izan ziren beste aize-golpe gogorak.

Orduan irauli zuen aizeak, Zumaia'ko zubitik beera, Bilbao'ko tren. Makina goian gelditu zen, eta bagoiak zintzilik. Azkeneko bagoietan zegoen jendea, urperatu egin zen, eta ez dakit zenbat persona ito ziren. Tren ori, tunelera sartu baiño leen, elektrika-indarrrik gabe gelditu zen. Orregatik gertatu zen, gertatu zena.

Urte artan, Maiatza arte, otea ebakitzen jarraitu genduen. Ote ugaria izaten zen orduan; lorea eta muskil berria. Ala eta guztiz ere, ganadua bizirik salbatu zen.

Orra emen nere morrontzako eginkizunak. Kaleko mutil koxkor bat, basarritar biurtu. Nere batxillerra ortarako izan zen.

ARROBIA ETA BASOA

Morrontza'tik Ugaldetxo'ko arrobira joan nintzen lanera. Emezortzi urte irixteko nituen oraindik, arrobi orretan lanean asi nintzenean.

Ordu arte irabazitako soldatak ariñak izan ziren. Arrobian ere etzegoen arronka geiegirik. Leenengo, asi nintzenean, amar pezeta eguneko, zortzi orduren kontuan. Orixe zen nere soldata. Gero, pixkanaka, igotzen joan zen. Baiña, ala eta guztiz ere, etzegoen odeiak jotzeko bildurrik.

Orduko gure nagusi eta gaiñekoak, ondorengo auek ziren: nagusia, Pedro Arbide, Altzibar ballarako Pastero etxekoa; enkargatu eta lixtero, Esteban Gonzalez, Ergoin ballarako Lezoti basarrikoa; errero, nere anaia, Joxe Krutz Ostolaiz, aritzen zen; eta, pioi bezala, Toribio, Araiñe basarrikoa; Gregorio Gorostidi, eta Juan Joxe eta Pelix, beraren anaiak; Patxi Albisu; Julio Etxebeste; Prudentzio Getaria; Patxi Iñarra, Altzibar balla-

rako Otsuene basarrikoa; Joxe Lekuona, Olaitz-zarre Ergoin ballarako basarrikoa; Anselmo Arbelaitz, Ugaldetxo ballarako Ibarre basarrikoa; Manuel eta Robustiano Urkia, Iturriotz ballarako Torres basarrikoak; Joxe Mari Maritxalar, Urkabe atzeko Txularre'koa; Joxe Mari Iriarte bertsolaria; Joxe Joakin Mitxelena bertsolaria; Irai'ko Patxi; Axaldi edo Axaldeg, Ergoin'goa; eta Joxe Dorronsoro eta Joxe Mari, bere semea. Auek ere basarrikoak ziren izatez; baiña azkeneko gerran, San Markos'tik kañonazo bat tira, etxea jo eta erre egin zen. Xoraburu'n bizitzen ziren.

Arrobiko lanak urritu zirenean, nora edo ara jo bear, eta basora jo genduen. Joxe Juan Iragorri zena genduen nagusi.

Arrobitik joandakoak, onako auek giñen: Joxe Mari Iriarte bertsolaria, Otsuene'ko Koxme eta Patxi bere semea, eta ni, Mariano.

Bertan ari zirenak, Meiko-etxeberri'ko Joxe Krutz; Añaki'ko Lorentzo Loperena eta Antonio bere anaia; Paulino, Aritzluzieta-bekoa basarrikoa; Aritzluzieta-goiko Bixente, Fermin eta Fidel. Fidel izaten genduen an enkargatu.

Urritz-zabal'eko pagoak botatzen jardun giñen. Sail eta eremu aundia bazen ere, geienai etorri zitzairen iltzea.

Mandazaiak, Ergoin'go Maxalen basarrikoak ziren, eta idi-parea ere bai. Idiak, Kri-xoxtimo Bidealde'koari erosiak zituzten. Lee-

nengo idiekin asi zena, Joakin Elizondo *Ur-diña* izan zen. Gero, ori soldadu joan zenean, anai gaztea, Domingo, asi zen.

Oriek egur lodia eramaten zuten idiekin; eta Joxe Manuel, anai zaarrenak, pagota eta egur mea. Au sei mandorekin ibiltzen zen.

Nola den! Denak egur eta ikatz-karraioan ibiltzen ziren. Leenengo, materialetako egurra eramaten zuten; fiñena, alegia. Gero, pagoburuak laurdenduak. Ondotik, ikatza, material txarrenekin egiña, edo leku txarrene-tako egurra aprobetxatuz egiten zena. Ikatz-kiñak Goizuetarrak ziren.

Auen nagusia, leen aipatu ditugun mutil-llen aita zen: Ijinió Elizondo, *Ur-diña* izen goitiz.

Orko egurrak eta ikatzak, Otraitz'eko txabolara eramaten zituzten. Gero, andik bear zen lekura.

Ikusgarria izaten zen zenbaitetan ango ibillera: gürdia, ardatzeraiño lokatzetan sartua; idiak, belaunetaraiño berdin; itzaia, ber-ritz, bazterretik, aal zuen bezala.

Mandazaiak berdin: mandoak, lurra triparekin jotzen zutela, bizkar gaiñean orrenbesteko kargarekin.

Ala eta guztiz ere, aurrera bizimodua, nola personak, ala animaliak! Denak gogor saiatzen ziren.

Denez gaiñera, erropa ere txarra izaten genduen. Ardi-larru zaar bat bizkar gaiñean. Ez iñungo zirarik eta ez beste aterkirik. Erropak bustitzen zirenean, su ondoan legortu,

aal zen bezala. Bizkar-zakua eta zaku-zerrendak legortu ere bai. Zaku-zerrendak galtzerdi ordezt erabiltzen ziren, oiñetan jarri-ta.

Kamañara lotara, eta gustora gaiñera. Azpian txillarra edo añua eta iratzea; eta gaiñean manta bat. Eguraldi ona bazegoen, erroparik kendu ere gabe.

Goizean, jeiki orduko, zatoa artzen genduen eskuan, eta gosari ttikia egin.

Gaur ez dagoela lanik esaten da. Baiña orduan bezala saiatu ezkerre, gaur egun ere izango litzake guztiontzako lana. Nik orrela pentsatzen dut beintzat.

Egun osoa igaro eta ogei ta bost pezeta irabazten zen. Jatekoa geure kontu izaten zen, eta bakoitzak berea eraman bear. Gero, denak sozio bezala jaten genduen.

Ni arrantxero jarri ninduten. Arrantxoa egin eta, sobratzen zen denbora, aizkoran edo porraketan burni-ziriai joka, lekuko lanari zijoakion eran. Nik ere orrela laguntzen nuen, aal zen neurrian.

Lan au onela izaten zen geienean: leenda-bizi, zugaitza azpi-azpitik trunka-zerrarekin moztu. «Ondo-botzea» esaten zioten, leenengo zugaitz botatze oni.

Arbola, bota ondoren, trunkatu egiten zen. Trunkatze onek lan desberdiñak izaten zituen. Batzuk besangak zerraz kentzen zizkioten; beste batzuk pagota aizkoraz kentzen zioten. Beste batzuk, pago-buruak porrakin

eta tataloz (taladroz) zulatu eta dinamitaz lertu egiten zituzten.

Orrela, denen artean botatako zugaitza puskatu eta banatzen zen. Arboldegi edo zugaitzi ederra bazen ere, ederki soilduta gelditu zen.

Orrelaxe egiten genituen azkar lanak, naiz orain bezala motorrik eta pistarik ez izan.

Gaurko egunean, pista eta piñua besterik ez dago. Pago batzuk badaude; baiña orduan bota etzirelako.

Ez naiz ondo gogoratzen; baiña etziren bi edo iru illabete iritxiko, eta osterarrobira joan giñen. Lan asko etorri zen orduan.

Errenderia'n, ibaia igarotzen den ortan, bi aldeetako ormak edo paretak, naiz Alameda eta naiz Papelera aldetik daudenak, Ugaldetxo'ko arrobiko arriarekin egiñak dira. ABC Soziedadeak egin zituen.

Arri oriek, aundiak izan arren, eskuz jasok izaten ziren. Tabloi baten gainean, jira emanaz, nola edo ala, baiña manejatzen ziren beintzat.

SOLDADUZKA

Gero, ni soldadu joan nintzen. Or ibilli giñen bi urte ta erdian.

Leenengo, Loiola'ko kuartelera; ortikan, Orio'ko gaiñera. Or barrakoi batzuetan bizi izan giñen, instruzioa ikasi arte. Gero, Zarautz'en bandera juratu, eta andik Errazu'ra.

Irun'era trenean; eta gero andik, *la vaca* esaten zioten trena bazen, eta artan abiatu giñen Errazu aldera. Kea eta autsa ugari botzen zuen. Noizbait iritxi giñen Elizondo'ra. Elizondo'tik Errazu'ra, oiñez. Goiz alde-rako sartu giñen barrakoietan.

Eguna zabaldu zuenean, erre kara, izotz-urarekin garbi-aldi bat artzera.

Asieran, batzuk besteen zai egon giñen. Mando eta zaldiekin zirenak, Loiola'tik oiñez etorri bear baizuten. Gero, elkartu giñe-nean, instruzio eta pruebak egiten asi giñen.

Beroa eta otza pasatzen genduen, asieran beintzat. Udazkena zen, eta gartzaiña ugari biltzen genduen.

Ori bai: tokiko berri ikasi genduenean, ez genduen iñora mugitzeko baimenik izaten. Errazu errira ere ezin jetxi. Egunean bi orduz uzten ziguten arratsaldean, eta orduan bijilantzi aundiarekin.

Au, mugaz beste aldera jendeak iges eginen zuelako zen. Beste aldea gertu baizegoen. Errazu'tik Baigorri'ra laixter irixten zen. Ori dala-ta, garai artan, lagun askok iges egin zuten.

Orduan, *makis* esaten zioten oriek ibiltzen ziren mugan zear. Gu, berriz, bijilantzian gau eta egun.

Egun batean, or sartu giñen Baigorri alde-
ra. Laiñoa zegoen, eta inguru aietan baso aundiak ziren, orduan beintzat. An geunden, non genbiltzan ez genekila. Etsia artu eta gero, azkenez, Baigorri'ra dijoan kamiora sartu giñen.

Sarjento bat, kaboa eta zortzi soldadu giñen. Sarjentoak onela esaten zuen:

-Este no es nuestro camino.

Eta kamioz gora abiatu giñen. Alako batean, *xendarme* edo mugaz arunzko zaindarekin egin genduen topo.

An izan zen pesta. Gu, armatuak; berak ere bai, eta ezin elkarri ezer adierazi. Frantzesez iñork ez baizekin. Gu, berriz, debekatutako lekuan sartuak.

Azkenean, nolabait ere, sarjentoak adierazi zien zerbait, eskuakin lañoaren keiñua eginen ziela. Orduan berak lagundu ziguten, Izpegi'ko gaiñean dagoen guardi-etxeraiño.

Orrela agurtu genduen elkar; baiña broma gutxirekin. Aurpegi illuna zeukaten frantzesak.

Beste egun batean, mugako etxe ortara joan giñen. Bertan mendizain batzuk zeuden. Guk zato ardoa betea bagenduen, eta ardoa eman genien. Ondo edaten zuten; baiña pena bat bakarra genduen: denak personak izaki, itz egin nai, eta elkarri ezin ezer adierazi; elkarren berri ezin jakin. Geroztik ez giñen alderdi ortara igo.

Negua or Errazu aldean igaro genduen; eta, udara etorri zenean, Donostia'ko Loiola'ko kuartelera aldatu giñen. Errazu'n naiko gaizki izaten giñen; baiña Donostia'n ez obeto.

Emen, botoi oriak eta urre-kolorezkoak ondo garbituak ibilli bear izaten ziren; botak, berriz, txarol antzeko brilloaz jarriak.

Donostia'ko Parte Zarrera atera ezkerero, ondo miatuak izango giñen aurrez, eta gero an ere oso erne ibilli bear zen.

Eskua bekain gainean maiz jarri bear izaten genduen, ikusten genituen galoien oroi-garri.

Gu askotan baztertu egiten giñen, eta beste aldetara jotzen genduen, sagardotegietara eta abar.

Orduan, gaur egun baiño sagardotegi geiago izaten zen, eta oietara joaten giñen.

Askotan, botak eta paseoko erropak ez jaztearren, edo errebista edo miaketa ez pasatzeagatik, kuartelean bertan gelditzen gi-

ñen, *Hogar* deitzen genion ostatu artan. Orrela ibilli giñen, negua iritxi zen arte.

Olentzero-egunean, Suantza'n barrikotea egin genduen; eta biaramonean, Eguberri egunez, *Loiola'tik topoan, servicio especial* batean, Irun'era joan giñen. Andik, *la vaca* izeneko bagoi zaarretan sartu eta Elizondo'ra allegatu.

An afaldu eta kanpo zabalean jarri ginduzten, euria eta elurra ari zuela. Afal ondoan, karakolen antzera, gure gauzak bizkar gaiñean artu eta Urdazubi aldera artu genduen. Goiz alderako iritxi giñen. Elurra eta euria eduki genduen denbora guztian.

Baziren bidean, etxe zaar batean, gelditu zirenak ere. Kartoizko botak genituen oiñetan. Goitik ura sartu eta beetik erten. Ura komeria! Ederki joan ziren Suantza'ko sagardoaren indarrak.

Elizondo'tik, kamioz-kamio, Amaiur'en zear gora, Otsondo'ko gaiñera; eta emendik goitik beera, Urdazubi'ko eleizaraiño.

Bazen bertan, eleizari itsatsia zegoen konbentua izandako edo zerbait orrelako leku bat; eta antxe egon giñen denbora luzean.

Gu, amar bat soldadu eta kabo bat, ekarri ginduzten, beste soldadu berriei instruzioa erakustera.

Gero, Orio'ko gaiñean egon giñen, barra-koietan, beste iru illabetetan. Orduan elkartu giñen berriro ere denak.

Leendabizi, *kabo-kozina* egon nintzen

illabete batean. Gero, berriz, furriel, etxera maiz etortzen nintzela.

Orrelaxe bukatu ziren bi urte ta erdi aietako kontuak.

Soldaduzkako egunik lasaienak Urdazubi'n pasa genituen. Astean bitan, gauez, mugara joaten giñen, Dantxarinea'raiño. Eguna asi arte an egoten giñen, eta gero erretira, gau guzian guardia egin ondoren. Nolanai ere, guregatik lasai ibilliko ziren kontrabandistak.

Gau batez, elurra zegoen, eta aundi xamarra gaiñera. Bi soldadu eta ni, kaboa, aterra giñen erritik; baiña ez oso urrutira.

An inguruan bazegoen ostatu bat. Bertan bi emakume bizi ziren, naiko edadekoak biak. Batek Margarita zuen izena, eta besteak Mertzedes. Biak aizpak ziren.

Orrelako gau itxusia ikusi ondoren, eta, leen aipatu ditudan bezala, gure kartoizko oiñetakoak jantzirik, odeietatik euria abiatu orduko ura sartzen zitzaienak, onela esan nien lagunei:

—Goazemak emendik ostatura.

Etzen bi aldiz esan bear izan. Laister utzi genduen mendia, eta bereala sartu giñen ostatura. Egunez ere, geienez an izaten giñen.

Sukaldera joan giñen, gure armakin. Oriek bai etzirela eskutik utzi bear izaten. Lurreko sua zen sukaldean. Bertan oiñetakoak legortu, gorputza berotu eta, naiko esne beroa artuz, bapo, goizeko irurak alde arte!

Makiña bat mesede egiñak ziren solda-

duei bi aizpa aiek. Guri eta besteri; denoi alegia. Soldaduzka bukatutakoan joango giñela agindu genien; baiña agindutakoa ez dugu bete.

Gau artako nere lagunak onako auek izan ziren: Martin Arrieta, Altza'ko Txipres basarrikoa; bestea, Patxo esaten genion bizkaitar bat; eta irugarrena, ni. Nik uste, nik ezik, besteak ere, bizi diren arte, gogoan eduki dute gau ura.

Ostatu ortatik atera eta jira-biratxo bat eman genduen, botak busti arte, sarjentoak zer egin genduen eta non egon giñen antzik eman etzezan.

Laurak inguruan, ezer gertatu zen edo ez adierazi, parte eman ez:

—*Sin novedad, mi sargento.*

Gero, bereala lasto gaiñera, *diana* goizean jo arte.

Anka-arrastoei begira asi balira, etzeukaten urrutira joan bearrik. Orrelako zenbat gauza gertatzen zen! Galoiak zituzten aundiak lo egiten zuten, eta guk zer egin bear genduen? Lo dagoenari edozeiñek pegatzen diola dio esaerak, eta ori egia da. Guk ere ala egiten genduen.

Baiña, bere neurritik atera ezkerro, persona galdu egiten dela, aspalditik dago esana. Eta au ere egia da.

Orduan, mugan barrika asko egoten zen: ardo, koñak edo patar, alkoola, eta nik al dakit zenbat klase geiago.

Denak ez gera berdiñak izaten, eta an ere

ez. Gaez joaten zirenak baziren; baiña auek *acemilero* edo mandazaiak ziren, eta besteak baiño libertade geiago izaten zuten.

Kantimplora esaten genien ontziak artu, baionetaz edo kutxilloz barrika zulatu, bertan geiegi eta naikoa edan, gero ontziak bete, barrikaren zuloa ondo tapatu gabe utzi, barrinean zegoena dena ixuri arte, eta gero kuadrara lotara.

Leenagotik ere bazegoen agintariei keja emana. Egun batez, mandoak prest egon bear zuten, mendira-edo instruzioa egitera joateko, eta bi edo iru mando eraman gabe edo faltan gertatu ziren. An izan zen festa! Orduantxe bukatu ziren gure lasaitasunak. Batzuegatik ordaindu bear besteak.

Udaran, erreka artan, amorrai asko izaten zen, eta eskuzko arrantzan naikoak arrapatzen genituen. Ango arrantxero edo kozi-nero zeudenekin, tratua egin genduen: guk amorraia ekarri, eta aiek guk ekarritakoa antolatu. Era ortan bapo moldatzen giñen.

Gero, Urdazubi'tik Donosti'ra etorri giñenean, penazko egunak pasa genituen; giltzapean lotuak bageunden bezalako egunak. Zer ote da libertadea!

Urdazubi'n geundela, txapelketa bat antolatu zuten, tiroan zeñnek obeto egin. Orduan, selezioa egin zen. Gero, aukeratutakoak Burgos'era joan giñen. Bertan zortzi egun igaro genituen.

Bigarren saria atera genduen. Leenengoa,

San Marcial taldeak izan zuen; eta gu, *Legazpi 23*'koak, urren.

Maiatza zen, eta elurra! Guk ez genduen otz aundirik sentitu. Zortzi lagun giñen, eta zortzi egun aiek ederki gogoratzen ditugu. Gogoan edukitzeakoak, izan ere.

Gure biajea, Urdazubi'tik Burgos aldera, kuriooa izan zen.

Kamioi batean atera giñen erritik. Baiña kamioi gizarajoak ezin zuen Otsondo'ra igo. Ura bota motorrera, eta iges egiten zion milla zirrittutatik. Laiñoa aurrean, ezer ikusten etzela; motorra berotzen zen, eta gelditu egin bear. Noizbait ere, Otsondo'ra igo giñen; baiña berandu.

Otsondo'tik Elizondo'ra bai azkar joan giñela. Azkarregi, bearbada. Baiña, ala eta guztiz ere, ordurako gure *la vaca* edo tren ura iges egiña zen.

Teniente bat bagenduen gurekin. Berak billatu zuen kamioi bat. Aren gaiñera igo giñen denak, eta Irun'go kuartelera. An tras-teak utzi, afaldu, eta nola ez bada? Oiartzun'a etorri gabe ezin egon.

Cabo primera edo leenengoa, Esteban Arrieta, Eskoriatza'koa genduen. Ni, *cabo segunda* edo bigarrenkoa nintzen. Baimena eskatu nion Esteban orri, ni eta nere lagun batentzat, Oiartzun'a etortzeko. Antonio Treku izenez lagun ori, Legorreta'koa.

—Baimena emango dizutet —esan zigun—. Baiña goizean ordutarako etorri gero!

-Bai, motell! Ezin egingo diagu oker aundirik.

Konpromiso aundia baizegoen, edozein oker egin ezkeru.

Orrela, beintzat, etorri giñen Oiartzun aldera. Etxera bixita bat egin eta Amazkar'ko sagardotegira, gure soldadu-arropakin. Bertan seirak arte egon, eta zazpiretan Arragoa'ko topoaren estazioan. Azkar ibilli giñen topoa artzeko. Ura uts egin ezkeru, galduta bai-geunden.

Sartu giñen, beraz, topo orretan; eta, abiatu eta lenengo tunelera iritxi zenean, indarrak jeixten asi zitzaizkion. Poliki-poliki joanez, goizeko zortzietarako Bentetara edo Katera. Etzen guk nai orduko iritxi.

Topotik irten giñenean, korrikari eman genion. Kuartelera iritxi giñenean, gure lagun Esteban ori oso bildurtuta zegoen. Esker-erak, oraindik tenientea etorri gabea zela. Bestela, gure buruko illeak jorraera ederra zeukaten. Burgos'erako korreoa, guk artu bear genduen, goizeko bederatzieta baizen.

Orrela, larritasun aundiekin, baiña oker-erik gertatu gabe, egin genduen gure biajea.

Beste egun batez, or atera giñen Donosti'ko *eultz*a edo *erle tokitik*. Guk orrela deitzen genion kuartelari: *erle-tokia*, alegia.

Gaizki jarritako izena, ordea. Erleak langille eta pizkorrak izaten baidira; eta kuartel etxe oietako asko, zein baiño zein alperra-goak, eta bestek egindakoa jaten benetan tre-

beak. Orra zer nolako aldea dagoen bata eta bestearen artean.

Atera giñen Loiola'tik, beraz, leen esan dutan bezala. Batalloi osoa giñen, eta astear-te-goiz bat zen.

San Markos menditik, Astigarraga'ko Benta'n zear, Barrengo-loia deitzen dioten parajera joan giñen. Andik Landarbaso'ra; eta bertan, atsedean bat egiñez, bokadillo bana jan genduen. Ondoren, Landarbaso'tik Benta-Txuri'ra. Benta-Txuri'n, kañoiak, morteroak eta ametralladorak antolatu eta prest jarri.

Aurretik, leendabiziko konpañia zijoan, bazter guztiak purukatu bearrean. Benta-Txuri'ko txokotik Urdaburu'raiño dena garbitu naiean, alegia. Guk, berriz, kañoi eta morteroz, aurrean zeuden arbol, zugaitz eta sasi bazter guztiak puskatzen.

Zenbat granada ote dira, Urdaburu mendiak lurpean dituenak! Lertu gabe eroritakoak, alegia. Muturreko espoleta edo pixtoia kendu eta botzen baigenituen, ez lertzearren. Bi orduko lana izan zen angoa.

Gero, Benta-Txuri'n bertan bazkaldu edo arrantxoa egin; eta andik, Goizueta'ko bi-dean dagoen Ereñozu'ko Ugaldetxo'ra iritxi giñen. Ostatuan saio bat egin, gero *tienda-kanpañak* prestatu eta lotara.

Urrengo eguna asteazkena zen, eta bertan igaro genduen egun osoa. Baiña gauean, bi gidari irten ziren aurretik, mendizaiak alegia,

eta gu, aien ondotik, mendiz-mendi, Ernani'-ra.

Ernani'tik, Urnieta aldera. Basarri baten inguruan gelditu giñen, leku zabal batean. Basarri ortako bi garo edo iratze-meta urratu genituen, kamaña egiteko. Aterki-zapia edo *tienda-kanpaña*, lurrean sartzen ziren zortzi burniekin antolatzen zen, sokarriz lotuz. Garoa edo iratzea lurrean zabaldu, eta etxea presto. Ori orrela jarri eta lo egin.

Urrengo goizean, Ernani errira jiratxo bat eman genduen. Osteguna zen, eta feri-eguna. Or goiza igaro, bertan bazkaldu, eta ostera berriro ferira.

Arratsaldean, or bueltaka genbiltzala, Olatz baserriko bi anairekin elkartu nintzen. Ni morroi egondako etxeakoak, alegia. Daniel eta Antonio izenez.

Elkarrekin afaldu egin bear genduela esan zidaten. Nik, berriz, nere afaria prest neukala erantzun; eta ondoren, lista pasatzean, an egon bear nuela.

-Ba! Ori errexa duk konpontzen -esan zidaten-. Listako garaiean egon adi an, eta gero etorri adi.

-Bai. Ori errexa duk esaten. Baiña lista pasa ondoren, etzegok ortik irtetzerik. Iges egin bear dik batek.

Eta ala egin ere. Lotako gure kamaña bide-bazterrean zegoen. Beste bazterreko lagunari esan nion zer gertatzen zen eta zer asmo genituen, eta noizbait etorriko nintzela.

Jetxi nintzen, beraz, Ernani aldera, eta an

zeuden zai nere bi lagun oriek. *Txintxua* deitzen dioten ostatuan afaldu genduen irurok.

Gaueko amabi ta erdiak edo orrela izango ziren. Ni soldaduz jantzita, bertso kantari eta abar antxe geunden. Debekatua zegoen, noski, egiten ari nintzena. Baiña ni, zer jantzi ñeukan ez nintzen gogoratu ere egiten.

Alako batean, bijilantziakoak or etorri zaizkit eta esan:

-¿Qué hace usted aquí?

Nik, afaldu egin nuela esan nioten; aiek nere lagunak zirela, orduantxe ninjoala lotarra, eta abar.

-Mañana se presenta usted al sargento de guardia.

-Joango nauk, bai.

Esan bezala, joan nintzen urrengo goizean gizon orrengana, eta ordurako bazekien denaren berri.

Saludatu nuen, eta ea zer gertatzen zen esan zidan.

Nik, alegia, bezperan berandu arte kalean egon nintzela, eta bijilantziakoak berarengana joateko esan zidatela adierazi nion.

Ondo zegoela esan zuen berak; eta ondoren:

-Zu kaboa zera; eta nola egin zenezake zure lekutik iges? Zer nolako errespetoa jarri bear duzu zuk? Beraz, aurrerantzean ez dedin berriro ere gauza au gertatu, kuartelera joaten zeranean, Ondarreta'n iru guardia egingo dituzu.

Nik, bitartean, ixilik egon bear.

Goizeko amarretan irten giñen Ernani'tik. Aterki-zapiak edo *tienda-kanpañak*, eta beste trasteak, bildu eta artu. Iratzea edo garoa bertan zabaldua utzi genduen.

Bereala, euriak eraso zion. Arratsaldeko irurak aldera iritxi giñen Loiola'ra, denak bustiak goitik beeraiño.

Zer ote zion basarritar arek? Nik ez dakit metak urratzeko baimenik bazegoen edo ez; baiña biltzeko, beintzat, etzegoen.

Erropak aldatu, gure arrantxoak egin, eta ni etxera. Urrengo goizean, goizeko zortziretarako, kuartelera.

Gure sarjento ori bere etxera alde egiña zen permisoarekin; eta nere guardiak libre gelditu ziren.

Orrelako asko genituen egiñak. Denak esaterik ez dago. Bestela, Mahón'go espetxera joan bearko genduke oraindik.

Noizbait ere utzi genduen, beraz, kaki kolorea. Egun batzuetan etxean egon, eta arrobira. Beste lekuetan ez baizegoen lan-aukera aundirik.

Soldadu lagun ezagunenak aipatuko ditut: Teodoro Otaegi, Zegama'koa; Andres Iriarte, Berdabio basarrikoa, Goizueta'koa; Juan Ugarte eta Juan Aranburu Larretxea, Goizueta'koak; Joakin Sarobe eta Biktoriano Uizi, Arano'koak; Emilio Mendikotxia, Igantzi'ko; Bautista Madariaga bertsolaria, Juan Almandoz, Julian Ubiria, Seberiano Almandoz eta Frantzisko Bergara, Aranazta-

rrak; Esteban Arrieta, Eskoriatza'ko; Patxi Gaztelumendi, Domingo Elizondo eta Salvador Ezponda, Oiartzun'goak; Paxkual, Artikutza'ko mendizaia; Leandro Artetxe, Oiartzun'goa; Migel Alzuri, aranaztarra; eta beste lagun asko.

Denen izenak ezin idatzi. Emen bere izena aurkitzen ez duenak barka dezala, denak ez baidauzkat orain gogoan. Denen gustoa egiten naiko lanak izaten dira.

SOLDADUZKA ONDOAN

Soldaduzkako egin bearrak bukatu ziren, eta osteraroko arrobi orretara lanera. Orduan, Jose Krutz nere anaia kamioiarekin ibiltzen zen. Berak itz egin zion nagusiari; eta arek, lanean segituan asteko esan zion.

Aldaketa aundiak aurkitu nituen. Leengo nagusiek saldu egin zuten arrobia, eta nagusi berriak genituen. Gidari, Florentino Arruabarrena genduen; eta Antonio eta Gabriel bere anaiak kamioiarekin ibiltzen ziren, emengo materialak eramaten, arrobikoak alegia.

Obretarako, graba, grabilla eta ondarra ibiltzen zen. Kamiotarako balastrua eta grabilla ere bai. Ormak edo paretak egiteko, berriz, arri aundiak.

Karea edo kisua ere egiten zen. Plaiatik ondarra ekarri eta morteroa ere egiten zuten an. Morteroa, zarpiorako, tabiketarako, baldosa eta oietarako erabiltzen zen.

Lantegi ontan, leengo lagunak baziren;

baiñan berriak geiago. Enkargatu, Manuel Urkia genduen. Lagun berriak, Nikolas Etxebeste «Xoraburu» eta bere illobak: Antonio Retegi, Juanito eta Patxi, Xoraburu'koak auek ere, eta irurak anaiak; Luis Odriozola eta bere anaia Xegundo, Sagasti basarrikoak; Antonio Lekuona eta Alejo bere anaia, Otsune basarrikoak, Koxmeren semeak; Lorentzo Larretxea, aranaztarra; nere anaia Inazio; Joxe Aranburu, Bordatxo basarrikoa.

Robustiano ere aritzen zen orduak sartzen edo orrela. Onek panadero egiten zuen lana Lezo'n. Gauean aritzen zen, eta gero egunez arrobian ordu batzutan. Geiago ere baziren orrela etortzen zirenak. Baiñan denen izenak idaztea eziñezkoa da. Oriek, egun batean etorri eta bestean joan egiten zuten.

Lana, eguneko zortzi ordukoa izaten zen; baiñan bederatzi eta amarrean ere egiten zen. Nolako eskaera zegoen, ala laneko orduak.

Jaietan bi lagun gelditzen ziren. Geiengentan, Inazio, nere anaia zena, eta Xoraburu'ko Antonio. Goizeko zazpietarako joaten ziren biak, eta karobiak egiña zegoen karea kendu eta ostera kargatu. Gero, illunabarrean, berriro ere lan bera egiten zuten. Eta ori, jaiero-jaiero.

Neroni ere gertatu izan zait lan ori egin bearra. Askok etzuten nai izaten, ordu txarrak baiziren. Ordu txarrak eta jaia, gaiñera. Sagardotegietara ere joan nai izaten zen, eta auek komeriak.

Jai bat berezia izaten genduen urtean zear: Aingeru Guardakoarena bera; au da: Martxoaren lenengo eguna.

Santa Barbara eguna, berriz, tiroa eta dinamitaren eguna izaten zen Arditurri'ko mina edo meatzetan. Baita ere beste arrobietan. Oriek egun ori ospatzen zuten. Baiñan guk, Aingeru Guardakoa.

Goizean, amarretako mezetara joaten giñen. Gero, amaiketako bat egin; eta ondoren, bazkaltzera. Jeneralean, Ugaldetxo'ko Bar Mateo edo Parada bazterreko jatetxean. Aurrez-aurre daude biak. Txikiardi'n ere egin izan dugu noizbait.

Au dena, nik or lana egiten nuen garaian gertatzen zen. Geroztik aldakuntza aundiak izan ziren, eta ospakizun auk ere bukaera izan zuten.

Beste bi jai-egun ospetsuak ere baziren: Ostegun Santu eta Ostiral Santu egunak.

Ostegun Santu egunean, eguerdiko ordubata arte egiten zen lana; eta, gero, arratsaldean, eleizara.

Ostiral Santu egunean, goizeko zazpietan Pasioko itzaldi edo sermoia entzutera joaten giñen. Gero, zortziretarako, arrobira lanera, eguerdiko ordubata arte. Arratsaldean, osteraleizara. Eleiz-funtzioan prozesioa eta kalbarioak izaten ziren.

Ori bukatzean, sagardotegira joaten giñen. Garai artan, erriko kalean, sagardoa bi lekutan egoten zen: bat, Fonda edo Amurriyane'ko azpian; eta bestea, Exkerraneko arakiña-

ren etxean. Oietaz aparte, Aduriz sagardotegian ere izaten zen.

Pazko larunbatean, goizeko amarrak arte etzen tirorik libre izaten. Pazko larunbat ortan, prest jarrita egoten giñen, eleizako kanpai-otsak noiz entzungo, leen esan bezela amarrak aldean alegia, barrenoei su emateko metxaren bitartez, eta tiroak *dinbi-danba!* kanpai-otsekin batera asten ziren.

Gure Jauna ordu artan eriotzetik libratzen baitzen; eta bitartean etzen libre izaten ez txisturik, ez kanturik, ez pilotajokorik, ez karta-jokorik eta abar.

Udaletxeko azpian, kontsejupean pilotarekin asten bagiñen, aguazilla laister etorriko zitzaigun, eta ez genduen partidorik bukatuko.

Jolas oriek pekatu zirela esaten ziguten, eta iru egun aietan orrela ibiltzen giñen, kaiolan sartutako txoriak baiño biotz illunagoarekin.

Leen pekatuak baziren, gaur egun zer ote dira? Eleizara joaten direnak, leengo zaarrak dira; gazteak gutxi. Xenpelar zenak zion bezala, bildur dira noski erori eta azpian artuko ote dituen.

Leen aipatu duten bezala, goizeko amaretan, kanpai-otsekin batera, barrenoei su ematen genien. Eta orduko tiro-otsak, kanpai-otsak, su-ziriak, kantu eta txistuak, etziren txantxetakoak izaten.

Biamamonean, Pazko eguna. Nai zuenak, edo aal zuenak, libre izaten zituen billerak,

soñua, sagardotegiak eta abar. Festa au dena, Garizuma bukatzen zelako.

Balioko al dute garai artako penitentziak? Bestela, beintzat, oraingoekin ez gera salbatuko, erreztasunari emanak gaude-ta.

Aste Santuan, etxean zeuden erroparik onenak jazten ziren, batez ere Erramu egunarekin eta prozesiorako.

Prozesioa, eleizatik atera, erriko plazara iritxi, an jira eman eta ostera eleizara joanez egiten zen. Leenengo, ate nagusitik ateratzen giñen. Zaindariak an izaten ziren, gu bezalako iñork iges egin etzezan. Eleizari jira eman eta Ospital Zaarrean zear beera. Gizonezkoak aurretik, eta emakumezkoak ondoren.

Or egoten ziren beste zenbaitu, pareta gaiñetik begira, zeñek zer jantzi eramaten zuen maxiatzen. Emakumezkoak izaten ziren, jakiña!

Plazan jira eman, Aita Mendiburu'ren irudi eta jardiñen aurretik; eta botika zaarretik, eleizara.

Eleiz-funtzio orretan kalbarioak eta itzaldi edo sermoia izaten ziren, lurrari muin emanez, jator arraio!

Eleizkizuna bukatu ondoren, sagardotegira.

Bein, Erramu eguna zen, eta Irurita'ko lepoa deitzen dioten eta Otraitz'eko txabolatik eskubitara dagoen mendi-ertz orretan, sua agertu zen. Eguraldi ederra zegoen. Egoaizeak jotzen zuen, eta bat edo batek or eman

dio su. Piñua zegoen, eta bai azkar asko su artu ere.

Jendea, berriz, artean lasai zegoen, txarolezko zapata eta traje onenekin, meriendatu eta sagardoa edanez. Baiñan Aduriz sagardotegian zirenak, beintzat, ederki estutu ziren.

Ni eta beste batzuk an arrapatu ginduzten. Kamioiean sartu eta sua itzaltzera. Agintariak, guardiazibillak izaten ziren.

Jendeak, berriz, erropak aldatu bear zituztela eta uzteko zion. Utzi bai! Leku ederrean! Zegoena zegoen tokian kolpetik utzi eta mendira gau erdi alde arte.

Aduriz'eneko sagardoak ederki legortuak izan bear zuten. Mendizaiñak ardoa edo zerbait eman omen zioten. Baiña egoa, sua eta kea, bazan naiko komeri.

Probatu ez duen iñork, ez daki sua itzaltzea zer den. Ardoak ez du egarririk kentzen, eta beste ezer eduki ez orduan an.

Orregatik, nik beingoarekin naikoa dut. Zailla izango da berriro ni mendira eramatea, sua itzaltzera. Oso bearrezkoa bearko du, ori gertatzeko.

Egun artan, sua itzaltzera joan zirenak, etziren bakarrik oiartzuarrak. Irun aldetik ere jende asko etorri zen. Baita beste inguruetako errietatik ere: Astigarraga, Errenderi, Lezo, Ondarrabi eta abar.

Erramu egunez, jende asko izaten zen Oiartzun'go eleizan. Ta Irurita'ko lepora joan zirenak, ederki kenduak izango zituzten eleizako intzentsu-usaiak eta zapaten bri-

lloak. Trajeak, berriz, ziur aski, armaioan urte beterako sartuak izango zituzten, pipiak jateko bildur aundirik gabe.

Ori orrela joan zen urte artan, eta urrengo urtean gauza bera gertatu zen. Jende ugari meriendatzen ari giñela, igazko mendi be-rean sua azaldu zen.

Baiña norbaitek abisua eman zuen mendian sua zegoela. Azkar asko ustu zen sagardotegia. Dena zegoen bezala utzi, batzuk ordainduta eta besteak ordaindu gabe, eta denak martxa.

Jendearen billa etorri ziren, bai; baiña alperrik. Jendea gordea; etxeetan ere iñor ez. Ez dakit zeinek itzaliko zuen sua.

Jendea gogorkeriz eramaten zuten, eta gogorkeriz oso zaila izaten da lana eragiten. Urte batean ongi portatu izan balira, urrengoan ere joango zen jendea. Baiña ez baizen orrela izaten. Geroztik ere izan dira suak; baiña orduan bezalako festarik ez dut ikusi.

Purgatoriotik etorritakoren batek emango zion su mendi orri, noski, Erramu eguna bezalako orren egun seiñalatuan. Ura etzen eleizatik joan, trajearekin, mendiari su ematera. Eleizan penitentzi bat eta mendian beste guretzat. Au egin zuenak, ez du purgatorioan igaro bearrik. Orrelako komeriak jartzen ditu, pakerik nai ez duenak: arria tira eta eskua gorde.

Onela bota zion bein Uztapide bertsolaria zenak Robustiano Urkia'ri, Errenderi'ko Bar Remigio'n, nere ezkongai-despedidako afaria

egin genduen egunean, Urkia ori oso to-
reatzallea baida:

Gorria dagona're
jartzen dezu berde,
arria tira dezu
ta eskua gorde;
Judas asten danean
gantxo eta sarde,
oraindikan gorriak
ikusteko zaude.

Ori egiten du mendi-erretzailleak ere.
Ikusiko dute orrelakoek, Judasek sardearen
puntan artzen dituenen, egindako kalteak
ordaindu arte. Norberarentzat mesederik ez,
eta besterentzat kalte aundia. Ori egiten zu-
ten erretzaille aiek.

Ori gutxi balitz, kalte ugari. Txori-kabi
asko erre egiten ziren, eta bai beste bizi asko
galdu ere: ganadu, ardi, eiza eta abar.

Urte aietan, Bidealde'ko Pako Iturain
nere oso laguna izan zen. Asko ibiltzen gi-
ñen biok.

Uztapide bi anaiak Oiartzun'a etorri zire-
nean, Bidealde'ko ostatu ortara biltzen ziren.
Manuel eta Naxario ziren izenez. Biak mun-
du ontatik joanak.

Jaiero Bidealde'n afaria egiten genduen:
bertako nagusia Krixoxtimo, Pako bere se-
mea, Joxe «Xulua», Ximon bere auzokoa,
eta beste bat edo beste giñen elkartzen giñe-
nak. Auetatik ni bakarra bizi naizena. Bes-

teak Jaungoikoaren aldamenean egongo dira, noski, onuzkero. Zenbat bertso kantatu ote zen ostatu orretan?

Gu, Pako eta biok, Pau'ko (Pagoaga'ko) errotako ostatuan ere askotan izaten giñen. Gure artean etzen izaten joko eta beste orrelako jolasik. Eizean ibilli, bazkal ondoan siesta egin, afaldu eta bertso ugari kantatu.

Gero, Pako ezkondu egin zen. Manuel ere bai. Aiek beren martxak, eta nik nereak.

Arrobian lanean ari giñela, askotan joaten giñen Ugaldetxo'ra.

Larunbata batez, afalduak giñen eta berriketan gogor asi giñen. Afal ondoan etortzen dira jeneralean indarrak eta bakoitzaren egin bearrak. Batek au egingo, eta besteak beste zerbait egingo.

Gurekin bat zegoena, Miranda Bordako uztargillea esaten genion Juan Joxe Azpeitia. Korrika apustuetaz asi giñen izketan. Amabost egun aurrez apostu bikain bat egiña zen inguruan: Ugaldetxo'tik Aldura basarrira joan eta ostera Ugaldetxo'ra etorri. Denbora bi orduan jarri zen, luzeenez alegia. Ordu ta erdian egin zuen interesatuak.

Iradi basarriko Patxi itzaia zen. Irurogeitik gora zuen adiña edo edadea.

Izketatu giñen larunbata orretan, nik bide ori ordu betean egin baietz esan nieten. Aiek ezetz. Sesio denak ala izaten dira: baietz eta ezetz.

Denbora askorik galdu gabe, segituan bota diruak. Seireun pezeta zeñnek jaso. Goi-

zaldeko ordubietan apostua egin eta bereala kondizioak jarri. Parada Ugaldetxo'ko ostatutik atera bear nuen, goizeko amaiketari, ostatuko mostradoretik alegia, eta osterari, Aldura basarriko atea jo ondoren, Parada'ko mostradorea ikuitu bear nuen.

Parada'ko alaba Petrak bi lokarri-aldi jarri zizkien nere alpargatei, autsi eta gaizki ez ibiltzearren; eta, aiek jantzi ondoren, galtza motzak eta kamiseta jantzi nituen, Pako Mitxelena'renak.

Ordularia, berriz, Ramon Mujika, Kata-lintxo basarrikoa. Kronometro ura eskumuturrean neukala, arin ibilli nintzen. Entrenatzeko denborarik etzegoen.

Ugaldetxo'tik amaiketari atera eta ama-biak bost gutxitarako Parada'ko barruan nintzen.

Etzen libre bidean ni iñork ikuitzea. Orrela gertatu ezkerari, apostua galdua neukan.

Baziren nere segidan edo atzetik, laguntzeko asmotan, abiatu zirenak. Baiñan ni Suantza'n gora asi nintzeneko, denak atzean gelditu ziren. Joxe Bordatxo'koa zen geiena segitu zidana.

Botilleroa, berriz, Antonio Retegi, Xoraburu'koa. An zegoen zintzo arraio Aldura'n, kafe beroarekin.

Apostu ori bukatu zenean, Dolorex, Parada ostatuko alaba zaarrena, eta nere lagunak, oera sartu arazi ninduten. Ordu betean egon nintzen manta azpian, izerdi ederrak boteaz.

Gero, bertan bazkaldu, eta Bordatxo'ko sagardotegira. Bertan afaldu eta gau erdi alde arte, bapo!

Patxi itzaiak ordu ta erdian egiña zuen jira edo buelta ori bera, irurogei ta ez dakit zenbat urte zituela. Nik, ogei ta bost urte baintuen, marka ori ordu erdi batean jetxi nezakela pentsatu nuen, eta alaxe gertatu zen.

Nik bide oriek denak ongi ezagutzen nituen, eizean eta abar asko ibiltzen bainintzen or.

Baziren, ondorendikan ere, apostua egin nai zuten bezte batzuk. Batean an azaldu zitzaidan Bordatxo'ko sagardotegian lagun bat, korrikalari profesionala bera, eta nerekin zuen itxuraz bere egin bear guztia.

–Nik ire marka autsi baietz! esan zidan.

–Ik jarri ezak nai dukan ainbesteko marka, eta nik irea autsi baietz! –esan nion nik.

Orrela ixildu zen gure korrikalaria.

Nik, garai artan, amar bat minutuan jetxiko nuen neronen marka; baiña ongi pre-paratuta. Ez leengo antzera, parranda egin ondoren.

Bein bakarrik egin izan det apostua, eta geiago bein ere ez. Apostutik irabazi gutxi dago, eta orrekin bukatzen da.

Ugaldetxo'ko arrobian lana egiten genduen denboran, Olentzero arratsaldea zen batean, nere anai Joxe Krutzeri gertatu zitzaion, pixtoletak zorrozteko sua pizten asi zenean, lerkio bat, pixtoia edo ez dakit zer

izango zen ikatz tartean, ta ori lertu zen, ta aurpegia ta bi begiak zaurituta gelditu zen.

Donosti'ko Klinika Arantzazu'ra eramán genduen gure nagusi Florentino ta biok.

An sendagilleak beren gauzak egin zizkio-ten, ta oiean geratu zen, trapuz dena lotua, bolara batean ezer ikusi gabe ta ikusteko es-
perantza aundirik gabe. Baiña ikusten zuela atera zen; bear bezala bein ere ez, ordea.

Barrikotea genduen gau artan Sagasti ba-
serrian. Ni joan nintzen, gastua egiña zegoe-
lako; baiña bertsotarako gogorik gabe, biotz
illunean.

Gure dibertsioa, igandeetan, sagardotegira
joatea izaten zen. An tokan saio bat egin,
merienda bokadu bat egin, bertso-saio batzuk
egin eta orrela pasatzen genduen jaia.

Lexoti izaten nuen lagun askotan. To-
rres'ko iru anaiak ere aritzen ziren: Manuel,
Robustiano eta Joxe. Baita ere Joxe Luix
Amolatz'koa, Inazio bere anaia eta Joxe
Mari Leñene'koa. Sagardoa edan ondoren,
bertsolari ugari. Orduko gure bertsoak, gaur
egun bezala, zintaz artu izan balira, parra
ugari egingo zuen jendeak.

Ikusi izan ditugu, asko gaiñera, bi sagar-
do-baso edan ezkerre, bereala sesio billa, be-
ren indarrak azaldu eta neurtu naiean. Baiña
gurekin etzen orrelakorik izaten.

Orregatik da bertsoa Euskalerriko lorerik
gozoena eta pake egillea. Jarrai aurrera,
bertsolariak eta bertsozaleak, pozgarria baida
zuen eginkizuna!

ELEIZ-GIROA

San Anton egunez, basarrietako aitonen festa izaten zen. San Anton eguna, Ilbeltza-ren 17'an izaten da.

Goiz-goizetik mezak izaten ziren; eta, batez ere, amarretako meza nagusia izaten zen debozio aundikoa.

Meza garaiean, janarien bedeinkazioa egiten zen. Meza aurretik, berriz, Goiko kalean ganaduaren bedeinkazioa izaten zen.

Eleiz-funtzioa bukatutakoan, batzuk etxera eta beste geienak, basarritarrak, kalean geldituko ziren, amaiketakoa egiñez.

Gero, konpradi-bazkaria egitera, bakoitza bere oiturako lekura: Ergoin'en, Bidealde tabernara; Altzibar'en, Albizturrenera; Iturriotz'koak Garbuno'ra; Ugaldetxo'koak, Mateo jatetxera eta Parada'ra. Beste auzoetakoan berri ez dakit.

Zenbat ganadu eder eta indartsu agertzen zen! Bazkal ondoan ni neroni ere iritxi izan naiz bi aldiz-edo, eta orregatik dakit au dena.

Urte guztiko kontuak eta esan bearrak an izaten ziren. «San Anton, arrosela *montón*». Egun artan iñork etzuen esaten errejimenik zeukanik. San Antonen bedeinkazioak zenbat balio ote zuan!

Oitura au, gaur egun, nik uste dutanez, gutxi egiten da. Basarriak galdu, urritu, eta oitura zaarrak illuntzen dijoaz.

San Anton egunean, eta urrengo igandean ere bai, Oiartzun, Lezo, Errenderi eta inguruko errietako jende asko joaten zen, Lesaka'ko lurretan dagoen San Anton ermitatxora, Aiako Arriaren sortaldeko magalean.

Leen, beintzat, gazte jendea ugari, denak oiñez, irrintzi eta kantu alaiez lagundurik. An meza entzun eta, suerte ona edukitzeko, limosna eman. Geienak beren jatekoarekin joaten ziren, eta, eguna ondo pasa ondoren, illuntzerakoan Portuberri'ra. An billera edo afaria; denetik zerbait.

Gaur egun, ez dira gazteak bakarrik joaten. Automobil asko baidago, adiñekoak ere asko joaten dira. Baiña ez da leen bezalako armoni pozgarririk ikusten. Soiñurik ere ez. Portuberri ere itxita; eta Ergoin'en egin bear egitekoa.

Garizuma asierako eleizkizunak, Kandelero egunaren ospakizunarekin asten genituen. Kandelero, Otsaillaren 2'an ospatzen da.

Goizean, amarretako mezetara joaten ginen, kandelak eskuan artuta. Aal zuenak, aal

zuen kandelik onena eramaten zuen. Bat baiño, bi edo iru eramán ezkeró, obe.

Onela, urte guztirako kandela bedeinkatua izaten genduen etxean. Trumoia edo tximista asten zenean, kandela bedeinkatua piztu, erramu bedeinkatua surtara bota eta gero otoitzean asten giñen.

Leenengo esaten genduena, au izaten zen: *Sancta Barbara, ora pro nobis*. Zenbat bider egin ote zuen ori gure ama zenak? Eta beste famili geienetan; berdintsu.

Santa Barbara eguna, Abenduaren 4'an ospatzen da. Baiña ekaitz txarra sortzen zenean, eta egun jakiñarik gabe, beti Santa Barbara aotan; eta bere ospakizun-eguna irixten zenean, eguraldi ona bazegoen, asko eta asko gogoratu ere ez.

Kandela bedeinkatua eramateko oitura asko izaten ziren. Eriotzaren bat gertatzen bazen, auzokoren bat, ezaguna baldin bazen, edo-ta ez bazen ere askotan, kandela bedeinkatuarekin joaten zen. Etxean ez bazegoen, dendatik erosita eramaten zen.

Orrelako oiturak ziran ordukoak, eta orain dela urte gutxi arte iraun dute. Gaur egun ez da kandelarik ikusten, oitura auekin beintzat.

Austerre eguna irixten zenean, goizean baraua asi ta gero amarretan meza nagusia izaten genduen. Apaizak kopeta autzarekin igortzen zigun, errezo au esanez:

–Autsa zera eta autsa biurtuko zera.

Otorduetan bijilia edo aragi uztea izaten

zen. Austerre egun orretan Garizuma'n sartzen giñen; eta, bera bukatu arte, ostirale-
ro bijilia izaten genduen.

Gero, mixiolariak etorriko ziren. Ez dakit seguru, baiña uste dut bost urtetik bein etortzen zirela. Bazterrak ederki astinduko zituzten; eta, azkenerako, biotzak bapo bigundu eta denak aitortzera.

Mixiolariak etziren urteetan ere, askotan izango zen praile edo beste sermoilariren bat, sermoia egin eta elkarrenganako maitasuna sendotu araziko ziguna, berriro aaztu arte.

Beste oitura bat, zazpi igandeena izaten zen. San Joseren izenean zazpiurrena deitzen zioten. Zazpi igande segidoetan, aitortu eta Jauna artu, San Jose egunean bukatuz.

Erramu egunean, goizean, meza nagusira joaten giñen, erramu-sortak artuta.

Erromeroa ere jartzen genduen, eta denakin gurutze bat egiten genduen, aal zen seguruena loturik. Gurutze aundiak egiten ziren.

Mutil kozkorrak, batzuk besteei erramu-sortaren puskak ostutzen eta kentzen aritzen ziren, batez ere kalekoak.

Bada ez bada, makil bat eramaten zen eskuian, erramu-sorta ostutzen asten zenari esku gaiñean jotzeko.

Egun ontan bertan, arratsaldean, berriro eleiz-funtzioa izaten zen sermoiarekin, eta gero prozesioa.

Ostegun eta ostiral santu egunetan, basarritarrak goizean gobernatzen zuten ganadua.

Ni morroi egon nintzenean, larunbat santuko goiz arte etzen ganadurik uztartzen.

Ostegun arratsaldean, leen esan dugun bezala, eleizara. Mutiko gaztetxoak, gure matrakak eta karrakak eskuan genituela joaten giñen. Aldare nagusiko eskallarak, denak beteak egoten ziren. Dionixio sakristaua aldare nagusiko txoko batean egoten zen, karraka aundi batekin bera ere.

Gero, itzaldia edo funtzioaren zenbait garaitan, an asiko ziren karraka aiek bullaka, denen belarriak minberatu eta gortu arte.

Jesukristori arrika ekin zioteneko otsa zela karraka-soiñu ori, eta orren oroimenez jotzen zirala karrakak eta matrakak, adierazten ziguten itzaldian.

Ostiral Santu goizean, zazpiretan berriro itzaldia. Batzuk, berriz, lantokietara, eta besteak beren zeregiñetara.

Ostiral santu arratsaldean, itzaldi txiki bat izaten zen. Karrakak eta matrakak jo, eleiz-otoitzak egin, prozesioa ere bai, eta ondoren berriro ere matrakak. Auek orrela dantzatzen ziren.

Prozesioan, Jesukristo illaren irudia, lau gizonek eramaten zuten bizkar gaiñean, aurretikan. Atzetik, Ama Birjiñarena, beste lau lagunek.

Kantoi edo eskiñetan, lau guardiazibik, beren armak bizkarretik muturrez beera zintzilik zituztela.

Prozesioan, denok ixilik eta serio.

Gero, plazatik, Don Felizeneko etxe orta-

tik gora, eleizara jotzen zuen prozesioak, bukatzeko.

Gauean, zazpiretan, kalbarioak izaten ziren eleizan. Orixe zen azkeneko funtzioa.

Beste elizkizun bat, Monumentoan Jaiaren guardian egotekoa izaten zen. Taldeka egiten zen guardi au, eta ordu bat edo bitik taldeak txandatzen ziren.

Fabritekako jendeari ostegun eta ostiral arratsaldeak jai ematen zizkioten, eta egun auk errespeto aundiz ospatzen ziren.

Pazko larunbat goizean, meza nagusia, kanpai-ots ederrarekin, triste zeudenak poztu zitezten.

Batzuk botilla bat ur eramaten zuten bedeinkatzeko; mutil kozkorak, berriz, kardakia. Kardaki orri su bedeinkatua artu arazi eta korrika etxez-etxe sua banatzera. Batzuk kalean eta besteak mendi aldean ibiltzen ziren.

Gauza ori, gaur egun larunbat gauean egiten da. Baiñan orduko txintxerri eta karraka edo matrakarik ez da izaten.

Leen, meza ematerakoan, apaiza belaunikatzen zenean, monagillo edo laguntzaille zegoenak, atzetik kasulla edo gaiñeko kapa jasotzen zion, belaunikatzeko trabarik apai-zak eduki etzezan noski. Eta, sagara zenean, txintxarria jo.

Norbaiti etxera Jauna eramateari, eliza-koakin joatea esaten zitzaion. Parola barruan kandela piztuakin eta txintxarria joz joaten ziren.

Jauna, norbait oso gaizki edo gaixorik zegoenean eramaten zitzaion; eta Pazko ondo-renean ere bai, Pazko-garaia betetzeko.

Zenbat bider ikusi ote dugu Dionixio sakristaua zena, apaiz jauna bere aldamenean zeukala, batera eta bestera, eleizakoak eramaten?

Apaiz asko ikusi ditugu lan ortan. Baiña geiena, Don Juan Frantzisko jauna.

Goiza bazen, ala arratsaldea berdin, gauean eta gau erdian berdin, naiz kalean eta naiz mendian.

Kanpanilla edo txintxarri-otsa sumatu orduko, jendea kalean, zegoen lekuan, belaunikaturik jarriko zen, eta txapela zeukanak bereala kendu.

Orrelako oiturak izaten ziren. Beti oiñez, eguraldi txarra edo ona egin, berdin. Gaur egun ez da ikusten inor orrelakorik egiten. Belaunak ez dira lurra jota minberatuko.

Pazkoak pertsona arindu egiten zuen, eta anima garbitu. Txartela deitzen zioten paper bat entregatuz Jauna artu eta orrela jakiten zen, zein etzen txartela entregatzera joaten. Pekatu aundia baizen uts egitea, alajaña! Gaur ederki aaztu dira orduko kontuak.

Ondotik, komunio txikiak eta aundiak egiten ziren, mutiko eta nextak zuzendu zitezten, gero ere okertzeko naiko denbora eta aukera izaten baida.

Maiatza edo Lore-illa zetorreanean, illunabarrero eleizara joaten giñen. Ama Birjiña aurrean zegoela, errosarioa esan eta denbora

berean abestuz, loreak eskeintzen genizkien gure Amari. Illabete osoan kanpai-otsak dei egiten zuten, belarriak gortu arte. Bai jendeak erantzun ere.

Errogatibak ere egiten ziren. Iru egun ziren. Leenengoa Iturriotz'en, meza eman eta kantatuz. Bigarren eguna Altzibar'en, gauza berdiña egiten zelarik. Funtzio auek, bi barrio oietan dauden gurutze eta aldare inguruetan egiten ziren. Errogatibak irugarren egunean bukatzen ziren, Oiartzun'go eleizan.

Santa Kruz eguna, Maitzaren 3'an, etzen Lezo'n bakarrik ospatzen. Oiartzun'en ere bai, prozesioa Urkabe mendira egiñez. Loratua zegoen elorri zuriari puska bana artzen genion eskuan, eta arekin prozesiora. Elorri ura, Urkabe'n gurutzearen aurreran bedein-katu, eta Urkabe'ko gurutzetik eleizara.

Funtzioa or bukatzen zen, eleizan, eta urrengo urte arte lixto! Oitura au ere, beste askoren antzera, galduta dago. Pena, baiña alaxe da.

Maiatzaren 15'an, San Isidro eguna etortzen zen, basarritarren festa. Goizean meza nagusia izaten zen, eta ondoren basarritarrek beren bazkaria.

Ezagutu izan dut nik Estankoan aski festa polita. Mitxelena eta Paulo Txikia ikusi eta entzun izan ditut bertsoan. Egun alaia izaten zen ura oso.

Arratsaldetik Munuaundi'ko mendi eta gurutzera, errosarioa esatera. Gero Txikiardi'ra, eta or bukatzen zen festa.

Gero, Salbatore eguna zetorren. Berrogei Kredo errezatzen ziren. Eleizan errezatuta-koak ez omen zuten balio; eta berrogei arri koxkor poltxikoan artu, eta, Kredoa esan alean, banaka-banaka arria kendu, denak bukatu arte. Au dena, induljentziak irabazteko egiten zen.

Ondoren, Korpus eguna elduko zen.

Bezperan, belarra moztera joaten giñen. Iia esaten diogun belar-klase ori, alegia; eta besteak, belar zabala.

Belar ura eleizan eta bidean zabaltzen zen; prozesioak pasa bear zuen lekuan eta meza emateko lekuan. Jaunaren bedeinkazioa, Fonda deitzen genion etxearen aurrean ematen zen, Arpidenea etxearen aurrean. Gaur egun, oraindik ere, leku berean egiten da funtzioa. Oiturak or jarraitzen du. Eguraldi onarekin, jakiña. Txarra bazen, eleiz barruan.

Egun berean, funtzioa bukatzen zenean, belarrak biltzen ziren. Edo, luzaroenez, urrengo egunean, kale-garbitzaille edo beste orrelako norbaitek.

Urrena, Jesusen Biotzaren eguna etortzen zen. Funtzioa goizean ospatzen zen, baiña lanera joan bearra izaten genduen. Basarritarrak, berriz, belar-lanetan eta abar aritzen ziren. Ala ere, mendi-basarrietatik etortzen ziren eleizkizunetara.

Goizean kanpai-ots ugariak izaten ziren. Balkoi eta leioetan Jesusen Biotzaren irudia jartzen zuten, zapi zuri batetik zintzilik. Jen-

dea, berriz, zintzo arraio eleizara joaten zen.

Orain ez da orrelako seiñalerik ikusten leio eta balkoietan. Askotan, berriz, jendeak ez daki Jesusen Biotzaren eguna noiz den ere.

San Antonio egunean Ereñozu'ra joaten giñen. Eleizara sartu, meza entzun, limosna eman, eta ondoren batzuk etxera bueltan eta besteak bertan festetan gelditzen giñen. Leku askotatik biltzen zen jendea Ereñozu'n.

Lastima or ere lekuak ttikitzen ari direla. Baiña eleizara joan nai duenak izaten du lekua. Gogoia artarako bear.

Ondoren, San Juan eguna, eta beraren kapillan meza ematen zen.

San Juan irudiaren bi aldeetara arto-landareak jartzen zituzten. Baziren ortarako zai eta prestatuta egoten zirenak. Artoa Martxoan erein, ondo gobernatu, eta gero kapillara. Aundienak bereizten zituzten.

San Juan egunean arto-landareak? San Juanetan artoak belea tapatzen bazuen eta sagarrari iru ale ikusten bazitzaizkion, urte artan naiko arto eta sagar. Esaera zaarra dugu au ere.

Abuztuaren 3'an, San Esteban, erriko Zaindariaren eguna.

Goizeko amarretan meza nagusia izaten zen. Leenengo, erriko agintariak joaten ziren, Udaletik abiatuz, alkate jauna kontzejalekin, ta gero gaiñontzeko autoridadeak, denei txistulariek laguntzen zieten. Bitartean, kanpaiak jotzen ziren, eta su-ziriak bota.

Biotz eta buruak alai eta arin-arin eginda, egun ori etortzeko pozetan egoten giñen, ilusio osoarekin.

Orain, berriz, festak ugari izaten dira, eta bear bezalakoak gutxi. Ilusioak, berriz, askotan galduta egoten dira, bear den eguna eta garairako.

Santa Krutz egunean, Iraillaren 14'an, Lezo'ra joaten giñen, Santo Kristori eskerrak ematera. Batzuk muletak eramaten zituzten; beste batzuk, bastoiak, osasunaren ongarrirako. Mezak, otoitzak eta limosnak eskeintzen ziren.

Jendea leku askotatik etortzen zen. Lesaka alde eta inguruetako errietatik, adibidez, Aritxulegi'n zear, oiñez, anakak arin askoekin. Beste atzerri inguru askotatik ere bai, etortzen ziren.

Elbarri edo ezbearrez zaurituta zeuden asko, fede gogorrean etortzen ziren. Santo Kristo au, oraindik ere antxe dago gurutzean, berarengana azaldu nai duenentzat.

Urrilla, errosario santuaren illa izaten genduen.

Askotan etortzen giñen basarritik, lanak utzita. Errosarioa errezatu eta, eleiz-funtzioa bukatzean, etxera. Afal ondoan ostera beste errosario bat errezatzen genduen, eta ori illabete osoan.

Urnieta'ra ere, jende asko joaten zen garai ontan. An zinta bedeinkatuak saltzen zituzten, eta kandela bedeinkatuak ere bai. Reumaren aurka egiten omen zen bixita.

Urrilla bukatu eta Azaroaren leenengo eguna, Santu guztien eguna. Kanposantura eta illobietara joateko eguna izaten zen.

Baita ere aldareko Jaunari bixitak egiteko eguna ere, eta eleizan sartuak egoten giñen goiz ta arratsalde.

Biamamonean, Animen eguna. Jendeak eleizara bixitak egiten jarraitzen zuen, bertan otoitz egiñez. Bakoitzak bere silla bazterrean bildumena piztua edukitzen zuen.

Eleizan, aurrean aulkiak egoten ziren, eta atzean ere bai. Erdian, sillak, Gizasemeak aulkietan jartzen ziren, eta emakumeak sille-tan.

Gero, egun onen ondoren, bederatziurre-na egiten zen. Illunabarretan errosarioa eta beste eleiz-funtzioak.

Azaroaren 27'an, Ama Birjiña Milagrosaren eguna.

Gure gazte denboretan, goizean, meza entzun ondoren, prozesiora joaten giñen. Bandera txuri urdin bat, makil baten puntan ipiñita, arekin ibiltzen giñen.

Eguraldiak laguntzen bazuen, prozesioan eleizatik irten eta plazaren erdian zear Altzi-bar auzora joaten giñen; andik Iturriotz'era, gero Ugaldetxo'ra, eta andik plazara. Prozesioa eleiz barruan bukatzen zen. Bide guztian kantatu eta errosarioa errezatzen joaten giñen.

Prozesioan, Ama Birjiña lau lagunek bizkar gaiñean eramaten zuten. Gero, kantoreak joaten ziren, eta ondoren gaiñeko jendea.

Gu, tartean. Gure gidaria, Don Pablo jauna izaten zen.

Illunabarrean, zazpiretan funtzioa. Leendabizi, sermoia. An kandelak piztu. Kandela auek, paperezko faroletan sartuak zeuden. Farolak, gorri bezala, ori eta beste kolorezkoak izaten ziren.

Prozesioa, goizean bezala, Ama Birjiña lau lagunek bizkar gainean arturik eta kanto-reak aldamenean zirela, eleizatik irtetzen zen; ta goiko kalean beera, eleiz atzeko Kinkirrinkiñenean zear, gero eskailleretan gora, eleizara ostera sartzen giñen. Eleiz barruan, Salbea kantatuz bukatzen zen.

Baiña jendea, konten eta ezin asperturik, kalean ibiltzen zen oraindik. Orduan kale bazterretan gaztain erreak saltzen ziren erri guztietan, eta Oiartzun'en Killirikupean. Jendea, aiek janez denbora pixka bat pasa, eta gero etxera bidean zear.

Orain umeak, orrelakoetan, ez dira eleizaren inguruetatik irtetzen. Izan ere, ainbat arrixku dago kamio eta bideetan! Garai batean, astoak ibiltzen ziren bideetan; eta orain, berriz, astakeriak ugari. Etzegok giro! Ama Birjiñari eska dezaiogun okertu gabe jarraitzeko.

Abenduaren 4'an, Santa Barbara, mine-roen eguna. Goizeko amarretan, meza. Gero beren billera egiten zuten. Ondoren, bazkaria. Askok, bazkari ondoren, egun pasa. Ori ere komenigarria izaten da iñoiz beinka.

Abenduaren egunik gozogarrienak, Eguberri jaiak ditugu.

Olentzero egunarekin asten giñen mutil eta nexkak. Batzuk Olentzero, eta besteak Naximentua geuren esku artean artuz, etxez etxe kantari eta diru eske ibiltzen giñen, egun eta gauez.

Or ibiltzen ziren mutil-taldetxo batzuk, etxe guztiak kantuz alaitzen, Jesusen jaiotza zetorrela aditzera ematen.

Guztiok dakiguna, beintzat, au da: etxeko familiko eguna izaten dela orain, eta leen ere ala izaten zela. Aal zuten guztiak beren aita eta amaren ondora biltzen ziren, eta egun orretan afari berezia egiten zuten.

Afal ondoan, gaueko amabietan, Oiartzun'go eleizan gauerdiko meza (*Misa de Gallo*) ematen zen. Meza denboran, ordea, batzuk lo eta besteak berritxukerian. Meza ori naiko naastua eta saltsa-bidekoa izaten zela eta kendu egin zuten. Obe orrela; errespeto geiago bear da eleizan.

Eguberri-goizean, seiretan, meza nagusia ematen zen. Batzuentzako luze xamarra izaki eta irten egiten ziren, bukatu baiño leen, eleizatik. Intzentsuaren usaiarekin mareatuta, agian. Nolanai ere, azkar sendatzen ziren berriro, eta katurako prest bereala jartzen ziren.

Urte zaarrez ere, afari berezia izaten zen. Olentzero gauean, aita eta amaren ondoan; baiña Urte zaar gauean, familia sakabanatuta, batzuk etxe batean eta besteak bestean.

Gazte giñen garaiean, afaldu eta kantari ateratzen giñen gau osoan. Taldea eta koplaria izaten zen jeneralean.

Ni neroni, ere iru edo lau urtetan koplari ibillia naiz, gauaren geiena kantari, eztarria urratu arte.

Urte batean, gogoratzen naiz, Iriarte bertsolaria zena eta ni giñen koplari, Inazio Pikabea soiñuarekin, eta beste lagun batzuk ere bai. Denen izenaz ez naiz gogoratzen. Batzuk aipatzeko: Manuel Urkia, nere anaia Joxe Krutz, Nikolas Etxebeste Xoraburu'koa, eta abar.

Tolare basarrian bazen neskatxa bat, Maria Luisa izenez. Aurrez bagenituen koplak batzuk kantatuak, baiña ez zen iñor agertzen. Bertsoa gustatzen zitzaiona, entzuten egoten zen, eta soiñularia ere jo ta jo. Eta Iriarte'k, neska ura kontuan edukirik, noski, onela kantatu zuen:

Ez al zerade urrikaldutzen
gu orrela ikusita?
Limosnarekin atal ondora
egin zaiguzu bixita.

Azkar agertu zen leen aipatutako neska ori, eta eskupekoa eman. Sagardoa ere nainkoa eman ziguten. Edari ori basarri geienetan izaten genduen.

Goizaldeko laurak alde arte ibiltzen giñen orrela, etxez-etxe; eta gero, bostetako mezetara. Meza entzun eta gero dantzara.

Gero, gosari txikia egiten genduen. Turroia edo galletak jeneralean.

Bukaera Dixparatene'ko denda zaarrean ematen genduen. Urte Berria ondo asi eta obeto bukatzeko elkarri desiatuz, gure etxetara joaten giñen, berriro ere beste orrelako ordu zoragarri batzuk pasatzeko gogoarekin.

FABRIKAKO LANAK ETA KONTUAK

Arrobia utzi nuenean, Pasai'ko Luzuriaga fabrikara joan nintzen lanera.

Lantoki orretara ni sartzeko, Oiartzun'go Xebero Goikoetxea txistularia zenak itz egin zuen. Leenengo nik ezagutu nuenean, Udaltxeko bandoak eta orko berriak aditzera ematen aritzen zen, tanborra eta makillakin orrua atereaz.

Julio aguazilla ere ikusi izan dugu, zenbait eta zenbait bidertan, lan bera egiten, meza ondorenean, txapela kenduta.

Baiñan gutxitan entzun izan dugu: «Emango dizuegu» edo antzekoak. Bandoarenak, elizakoak bezela, beti eskatzekoak izaten ziren. Apaizak pulpitotik eskea, eta meza ondorenean bando-jotzalleak ere bai, auetxek ziren komeriak.

Gaur egun ez da orrela izaten. Barrio edo auzo bakoitzean ortxen jartzen dituzte orriak, eta oietatik giatzen gera. Baiña beti eramatekoa izaten da.

Leen aipatu duten Xebero jauna, almazeneko enkargatua zen Luzuriaga fabrikan, eta jendearen buru egiten zuenari itz egin zion. Joxe Maria Orube zuen onek izena. Segituan joateko lanera esan zidaten.

Ala, joan nintzen biaramonean, bi argazki artuta. Bereala egin zidaten fitxa. Baita esan ere:

-Astelenean etorri lanera.

Nik baiezkoa eman nien.

Baiña bitartean aita gaizkitu zen. Ori zela eta, zortzi eguneko atzerapena izan nuen, gure aita zena il egin baizen egun aietan.

Orrela, beraz, asi nintzen lanean.

Leendabiziko laguna Joakin Mitxelena izan nuen, gaur eguneko Mitxelena bertsolariaren osaba. Biok ederki konpontzen giñen.

Leenengo lana pabelloi berria egitekoa izan nuen. Obra dena ormigoi eta barillaz egin zen.

Ondoren laister, Errenteri'ra ekarri ninduten. Emen labe eletrikoak izaten ziren, burnia funditzeko. Bat falta izaten zenean, aren lekua osatzera joan bear izaten nuen. Orrela ibilli nintzen or urte betean, eta gero berriro Pasai'ra joan nintzen.

Or fijo jarri ginduzten Robustiano Urkia eta biok. Ikatza eta aizearekin urtutzen zuten burni zaarra, labe edo kubilote oietan.

Leenengo enkargatua Patxi pasaitarra izan nuen; eta gero, Bikandi. Au Oiartzun'goa zen. Urrengoa, Emeterio. Bertan ateratzen zen kea baiño aurpegi beltzagoa zuen.

Jefe bezala Arenaza eta Urreta egoten ziren. Oiekin denbora luzean iraun genduen.

Goizean bostetarako joaten giñen lanera, bizikletarekin.

Jelate gogorrak egin zituen urte batean, orain ogei ta bederatzi urte. Oiñez joan izan gera Oiartzun'dik Pasai'ra, etxetik goizeko iruretan irtenda, Robustiano Urkia eta biok. Leguna zegoen, eta errex erortzen giñen lurrera. Egun aietan jende askok artu zuen miña, erorita.

Orduan etzen, orain bezala, autobusik izaten; eta izanda ere, ordu oietan gutxiago.

An izaten zen festa: labeak jiran ura bear izaten zuen, eta ur denak izoztuak. Pixka bat berotu arte, etzen urik izaten. Ango tximeñiak eta labearen txapak etzuten otz aundirik sumatzen.

Oiartzun'dik, Robustiano eta biak ibilli izan gera urte askotan.

Gero labe berriak egin zituzten, eta an enkargatu berria, Migel Anjel Aznar izenekoak, jarri zuten.

Jefe, or ere, urte askotan, Urreta egon zen.

Burnia urtu eta piezak egin, ura zen gure lana, sua eta kirats tartean sartuta.

Orduan ez genduen sagardotegira joateko asti askorik izaten. Amabi ordu egunean egi ten baigenduen lana, eta jaietan ere lanera joaten giñen, labeak konpontzera. Igande arratsaldea bakarra izaten genduen jai, eta

ori ere amabostetikan bein. Orrela ibilli giñen urte mordo batean.

Bitartean, enkargatu berri bat izan genduen: Julian Berrondo, gure lagun aundia. Arekin ere kontentu ibiltzen giñen.

Baiña ezbear batean il zen. Labearen tapa bat askatu eta burni-salda edo eskoriak bertan arrapatu zuen, eta erreta utzi zuen. Bi edo iru egun igaro zituen bizirik, baiña bukatu zen gizajoa. Gaiztoa izan zelako beintzat, ez da leku txarrean egongo.

Orrela, eguna joan eta eguna etorri, lan berdiña egiñez.

Bagenituen lagun jatorrak: Isidro Zumeta; Periko Oiartzun; Felipe Aierbe, Ataun'goa; Joxe Mari Aranburu, Ergoin auzokoa, *Altzi* deitzen geniona; Juan Imaz; Joakin Gelbentzu, Ergoin'goa au ere; Joxe Mari eta Joakin il ziren.

Xanti izeneko bat, berriz, labera erori zen eta geiago beraren arrastorik gabe gelditu giñen. Pasai'koa zen.

Juan Otaegi, Goiaz'koa, Arragua auzoan bizitzen dena, eta Joxe bere anaia ere, gurekin izaten ziren. Au ere il zen, eta gaztea zelarrik.

Robustiano Urkia'k ere bertan jarraitzen zuen. Ta beste lagun asko sartu-aterean: Anjel Merkader, Arragua'koa; Jesus Zapirain, Altza'koa, eta abar.

Beste lagunak kastillanoak ziren. Portugesak ere bagenituen; orain ere badira eta.

Orain euskaldun gutxi gaude: Juan Al-

mandoz, aranaztarra; Jesus Zapirain; Estanislao Etxabe, Errenteri'koa; Joxe Lasa, Aitzi'koa; Estanisloa Ariztegi; Luziano Galparorro, kontra maestra, Legazpi'koa eta Errenteria'n bizi dena; eta ni.

Gero, soldadore edo konponketakoak, Luis Etxezarreta eta Bixente Biurrarena; eta jefe, Fernando Aznar.

Denak izendatzerik ez dago. Emen ere, sodaduzkarekin bezala gertatzen baita.

Gaur egun, jendearen buru dagoena Manolo Brias dugu.

Emengo langintzak ez du aldaketarik izan. Beti berdin, su eta ke tartean; batzutan lan geiago eta besteetan gutxiago, eta orrela aurrera.

Orain, urte batzuetatik onuntz, zortzi orduko iru erreleboetan ari gera, goizean, arratsaldean eta gauean. Leengo garai aietako amabi orduko saiotik oraingo zortziko onetara, badago alde ederra. Orain aizea artzeko ainbat denbora izaten dugu.

Ogei ta amabi urte dira, Luzuriaga'n lana egiten dutela; eta, ondo bagoaz, beste urte bete pasatuxea falta zait jubilatzeke.

Jakiña da zaartu eta zer dagoen. Baiña, ala ta guztiz ere, urte ori joateko pozetan nago, jubilazioko egun ori noiz iritxiko ote den zai jarrita. Askatasuna, laneko askatasuna alegia, noiz etorriko.

Ilusioarekin bizi bear dela esaten dute, eta esperantza ori omen da azkena galtzen dena. Guk onekin jarraitzen dugu: burni-

saldak ez gaitula arrapatu ta erreko, beste batzuk egin izan diren bezala. Arrixko aundiko lanak baidira gureak.

Denean dago arrixkoa, eta errerik gabe gutxi geratzen dira. Eskua edo lepoa erreta ondo xamar ibiltzen da. Baiña askotan anka erretzen da, eta orduan pazientziarekin artu bear, besterik ez danean.

Nik uste, guretzat purgatoriorik ez dala izango, mundu ontan orrenbeste erreta. Baiña datorrena artu bear, leengo esaera zaarrak dionez.

SAGARDOTEGIAK

Oiartzun'go erriak sagardotegi asko eduki izan ditu. Gaur egun ere badira; baiña gutxi.

Errenteria'n ere berdin: sagardotegi asko izaten ziren, naiz kale ta naiz baserrietan.

Oiartzun'en, batez ere garizumako garaiean, eta gure gazte denboran, errian izaten ziren sagardotegiak, auek izango ziren: Fondako azpian, Exkerraneko arakiñenean, Artxaiarenean, ondoren berriz Aduriz'enean. Auek, beintzat, batzuk aipatzekotan. Naiko dibertsio izaten zen oietan.

Ardoa gutxi edaten genduen; edo, obeto esan, bat ere ez.

Leendabiziko, baso sagardo batzuk edan. Ondoren, tokan saio batzuk egin.

Goizetik bagañen, gosaldu. Jeneralean, bakallo tortilla. Ori izaten zen, geiena erabiltzen genduen.

Arratsaldetik, gauza berdintsua egiten zen. Jatekoa, berriz, batzuk txuleta, besteak kostilla erreta, modua zegoen bezala.

Afal ondoan, berriz, bertsoa eta kanta. Denetik izaten zen: aserreak, borrokak, demako desafioak... Makiña bat olako ikusita gaude.

Bertsoa, berriz, nola edo alakoa. Bertsolaria etzenak ere, kantatu egiten zuen. Gaztetan entzun izan dut bertso bat; osoa ez naiz gogoratzen, baiña bi puntu auek naikoa adierazten dute:

Etzait ajolarikan
egon edo ari,
zurruta egin ezker
denak bertsolari.

Sagardotegiko aurpegi beltzak baiña obea zen ango bertso txarrena ere. Baiña bertso orrek diona ez da dena egia. Bestela etzen izango asarre eta mutur-jokarik.

Sagardotegietan ibilli denak, gauz oien berri jakingo du, noski; eta ibilli ez denak, ikasi dezala. Esaera zaarrak dion bezela, alegia: Dakienak badaki; ez dakienak, baleki.

Bein amar bat lagunetik gora juntatu ezker, izango da bateonbatekin naaspilla edo saltsa. Iru lagun ezker, sekretoak kanpora. Artaldean ardi beltz bat beti izaten den bezala, orrelako kuadrilla ere beti izan oi da saltsarako norbait.

Orrela, garizuma bukatutakoan, leku askotan izaten zen sagardoa.

Ergoin ballaran, Olaizberri'koa oso fama-

tua zen. Kostilla jate ederrak egin izan ditugu bertan.

Altzibar'en ere baziren. Joakin Gonzalez'ek Pottonea'n izaten zuen sagardotegia. Joxe Juan Iragorri zenak ere izaten zuen. Iruñiarrenea'n ere bazen.

Ugaldetxo'n, Katalintxo'n ere izaten zen. Txipito'n ere bai. Baleionea'n eta Ibarre'n ere egon izan zen.

Baita ere Arragua-zarra'n, Bidebitarte Arraguakoa'n, Lartzabal'en eta Ariztizabal'en.

Iturriotz'en, leendabizi Martiarrene'n; Garbuno'n ere bai.

Baiña guk mendi aldera jotzen genduen. Ara abiatu ta sagardotegia bagenduen Amazkar'en, Portugal'en, Suantza'n, Ariztizabal'en, Bordatxo'n, Txoritokieta basarrian. Au Errenteri'ko mugan dago.

Trabaleku'n ere bai. Iturralde'n, berriz, etzen txotxetik izaten. Ura ostatua bezala baizen.

Karrika'n, Bidasoro'n.

Beste sagardotegi famatua Txikiardi'koa izaten zen.

Denetara iritxiak gera. Baiña gure naienekoak eta gustokoenak, auek izaten gënituen: aste-egunetan, Baleione eta Katalintxone; eta jaietan, Bordatxo, Amazkar, Portugal, Suantza eta Trabaleku.

Etziren denak batera irikiak egoten. Batak besteari itxogiten zion.

Sagardoak bukatzen ziren garaiean,

Amazkar eta Iturri-alde'ra joaten giñen. Iturri-alde, Errenteri'ko basarria zen. Gaur egun, larrak eta sasiak artuta dago.

Egin izan ditugu leku orretan egonaldi aski eder eta atsedentsuak, exeri ta aoa ez bazen geldirik egoten ere.

Bein asto-jatea egin genduen. Neri afari bat zela esan zidaten: zikiroa, edo ardi zaarra, edo orrelako zerbait jan bear genduela. Larunbata zen. An ere bertsoa asko gustatzen zitzaioten eta baietz: kantatuko nuela esan nioten.

Asi giñen, beraz, afari ori egiten, eta bereala onela bota nioten: ea, alegia, zikiro edo ardi zaar arek zenbat lodiko ezurak zituen.

Denek parrari ekin zioten, eta ni lasai. Usteko zuten, nonbait ere, nik utzi egingo nuela, edo nazkatu egingo nintzela. Baiña besteak ainbat jan nuen, eta gozoa zegoen gaiñera astokume ura.

Leendabiziko aldia izan zen ura astoa jaten nuela, eta geroztik ez det jan.

Afari luzea izan zen: goizaldeko laurak arte, eta gero bostetako mezetara Oiartzun'a. San Inazio bezperan zen afari-eguna, eta biaramona igandea eta santuaren eguna.

Zenbat bertso kantatu ote zen gau artan? Añarbe'ko lau anaiak ziren an, eta auetatik iru, Patxi, Laxaro eta Xanti, bertsolariak. Nik ere kantatzen nuen.

Besteak onako auek ziren: Mariano Iparagirre, Añarbe'ko laugarren anaia zena;

bertako familiakoak eta Mirandaborda'ko Juan Joxe Azpeitia ere bai.

Iturriotz'ko festak ziren. Leenago naikoa egin gabeak nunbait ere izaki, eta segi egin bear eguardi artera. Gero, lotara.

Iturri-alde orretan askotan izaten giñen, batez ere igandeetan. Soñua jotzen zuten bertan eta billera egiten zen. Paulo Urreolabeitia ere ikusi izan dugu soiñua jotzen. Paulo nere laguna zen.

Igande batez, or joan giñen Iturri-alde'ra nere anaia Bruno, Inazio, Paulo eta ni. Naikoa jolastu ondoren, etxera abiatu giñen Paulo, Inazio eta ni.

Baiña illundu zuen eta an ziren festak. Iturri-alde'tik Suantza'ra arte bide txarra zegoen, estrata zaar bat, lokatza eta zuloa besterik etzuen. Zenbat aldiz jo ote zuten lurra Paulok eta Inazio zenak, Iturriotz'era iritxi giñen arte? Paulok gogoan izango du, noski, oraindik pasadizo ura. Gure amak izango zuten erropak garbitzen lan ugaria.

Sagardoak txotxean asten zirenean, tabernetara gutxi joango giñen.

Lexoti bertsolaria lagun izaten nuen geienetan. Baita Urkia iru anaiak ere. Denak bertso kantari aritzen giñen. Euxebio Barin-garate-goikoak ere bertsoetan bapo egiten zuen. Bere anaia Jeronimok ere bai.

Festarik aundienak Bordatxo'ko sagardotegian izaten ziren. Apostu edo demak ugari.

Lexotik eta Usabiaga korrikalariak ankutsik egin zuten apostu bat.

Aizkoran ere bai. Batean, Sebastian Ariztizabal'koak eta Lexotik apostua zuten. Lexoti an egon zen zai, prest, bere egurrak eta aizkorarekin. Baiña Sebastian zena etzen azaldu, eta ez genduen aposturik ikusi.

Lexoti, bere ezin egonarekin, bakarrik asi zen lanean aizkoraz. Ezpal batzuk ebaitera iritxi zen; baiña bereala utzi, eta an gelditu zen egurra, moztu gabe. Oraindik ere an egongo da egur ura ziur aski, usteldu ez bada beintzat.

Aitzaki oiekin biltzen zen jendea.

Bein batean, orain dela berrogei bat urte inguru, Suantza'ko sagardotegian, Lexoti bertsolariari gertatu zitzaion, mai batean meriendatzen ari giñela, lagun batek sagardo txarroarekin jo zuen aurpegian, eta zaurituta utzi zuen. Broma gutxiko gizona izaki, kaskarin xamarra. Gauz penagarria lagun arterako.

Tokan, musean, bertsotan ari, broma ederrak igaro, eta goiz aldera etxera erretiratu.

Garai aietan garia ereiten zen. Gero, lasto-metak egiten zituzten. Zenbat eta zenbat aldiz ibilli ote gera, Amazkar eta Bordatxo'tik, lasto-sortari su eman eta aren argiarekin gauean?

Egun alaiak igaro izan ditugu, lagunarte gozoak, bizi geran arte gogoan edukiko ditugunak.

Sagardotegiak Euskalerriko bertsolarien kolejoak izan dira, leengo bertsolari zarrak zioten bezala.

Sagardotegirik izan ez balitz, etzen bertsolari asko izango; ez eta aizkolari, ididema, sega-apostu, pilota eta beste dibertsiorik ere. Berdin aari-demak, trikitixa eta soñua, dantza eta abar.

Esan liteke Euskalerria galduta legokela, ez bazen sagardotegirik izan. Itzal azpiko barearen antzera, ez luke argirik ikusiko, eta gure izkuntza ere galduko litzake.

Orregatik, Euskadi gure Amari lagundu bear diogu, denok bat eginda, mundua munda den artean iraun dezan.

Oiartzun'en, 1985'eko Otsaillean.



ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya. (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*. (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).

34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echegaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz Bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunena bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zabala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen. (*Aitua*).

85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari. (*Aitua*).
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak. (*Aitua*).
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.

141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsokaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolai*: Oroipen-kutxa.



AUSPOA
LIBURUTEGIA